ttipi ttapa
326
2002ko maiatzaren 23a • XXII. urtea



## Matxinbeltzeneak 10 urte bete ditu 03

Lesakan, teilatu beraren azpian euskaltegia, aterpea, ostatua eta jatetxea biltzen dituen Matxinbeltzeneak hamar ikasturte bete ditu lanean.



## Elizondoko Txokoto txapeldun 25

Elizondoko Txokoto Ostatuak irabazi du Baztan-Bidasoako X. Areto-futbol txapelketa, finalean Doneztebeko Titi Ostatuari 4 eta 2 irabazi ondotik.



# Egoitza berria Doneztebeko musikariendako 04

## DATUAK...

• 1991ko azaroaren 24an zabaldu zen Lesakan Matxinbeltzenea, teilatu beraren azpian euskaltegia, aterpea, jatetxea eta ostatua biltzen dituena. 11 urte dira, baina hamargarren ikasturtea beteko dute.

• Ekainaren 8an besta eguna antolatu dute. Arratsaldean triki-poteoa, gauean afaria Kattu jatetxean eta gero kontzertua Tapia eta Leturiarekin. Afarirako txartelak maiatzaren 24a arte salgai daude, 20 euroren truke.



Aitor AROTZENA

**Beñardo GOIETXE-Jon LARRETXEA** *Matxinbeltzenekoak*

# «Jendeak euskara maite duen bitartean segituko dugu lanean»

Aitor AROTZENA

**Hamar ikasturte, hameka urte igaro eta hamaika pasadizo gertatu izanen dira Matxinbeltzenean. Zer balantze egiten duzue?**

Batez ere euskara bultzatzeko egin zen etxea, euskaltegia eta barnetegiarekin, eta gero, bertze gisako zerbitzuak ditu, albergea, ostatua, jatetxea... Bistan denez, 10-11 urtetan denetik izan da, baina balantze ona egiten dugu. Hasieran lagun talde batekin eta sekulako borondatearekin etxea moldatu zen, jende aunitzek hartu zuen parte. Gaur egun, talde eta bitarteko batzuk badaude. Egoera normalizatu batera ez gara ailegatu oraindik, baina finkatu egin gara. Lesakak eta bortz herriek euskararen alde erabiltzeko lekua badute.

**Euskara bultzatzea izan zen lehenbiziko helburua. Euskararen egoeran hobekuntzarik somatu duzue hamar ikasturte hauetan?**

Euskararen erabilerari dagokionez, inguru hau Euskal Herriko onenetarikoa izanen da, seguru aski. Zaila da euskararen egoera neurtzea, baina gure lanari eta batez ere ikastola eta eskoletan egiten den lanari esker, ezagutza maila dexente igo egin da. Ikasle gehienak D ereduan ari dira. Erabilpena ere altua da eta gabeziarik handiena administraziotik edo Gobernutik datorren kontrako uholde hori izanen litzateke. Baina jendeak euskara maite duen bitartean segituko dugu lanean.

> «Lesakak eta bortz herriek euskararen aldeko ekimenetan erabiltzeko lekua badute Matxinbeltzenean»

**Euskaltegia eta barnetegia bultzatu zenuten hasieratik, baina aterpea eta ostatu-jatetxea ere baduzue. Zaila da zerbitzu guzi hauek teilatu beraren azpian uztartzea?**

Hasierak ez dira errexak izaten eta izan ziren arazoak. Hainbat jende ibili da hemen lanean, sartu-atera... Azken urte haurtean talde finko bat lortu dugu eta kontent gaude. Lau zerbitzu dira, baina helburu ezberdinekin. Euskaltegia eta barnetegia euskararen irakaskuntzarako dira eta, jakina, hori defizitarioa da. Beraz, aterpearen eta ostatuaren helburua dirua ateratzea da. Hasieran ez genuen arlo hauetan esperientzia handirik eta gosta egin zitzaigun martxa hartzea. Orain, ostatu-jatetxea errentan emana dugu eta formula horrekin dexente finkatu dela uste dugu.

**Gibelera begira hamar ikasturte egin dituzue... Aitzinera begira egitasmo berririk baduzue Matxinbeltzenean edo gaur egun duzuena finkatzearekin aski da?**

Momentuz eskaintzen duguna finkatua dago: inguruan euskara ikasi nahi duenari euskara ikasteko aukera ematen diogu ikasturtean eta udan hiru hilabetez barnetegia egiten dugu. Politena izanen litzateke hiru hilabeteko barnetegia egin beharrean, hori zabaltzea. Inguru hau euskara ikasi nahi duen edonorentzako aski inguru aproposa da eta hori izanen litzateke gure erronka. Baina horretarako laguntzak behar ditugu eta ikusi beharko... Hasierako bizpahiru urtetan neguan ere egin zen barnetegirik, baina geroztik laguntzak beheiti egin dute eta utzi behar izan genuen.



Karmele TOLOSA
127 ikasle ditu aurten Doneztebeko Musika Eskolak, inoiz baino gehiago.

**Ekainaren 16an inauguratuko dute Doneztebeko udal musika eskola berria, lehenago liburutegia zen lekuan. Egun horretarako ikasle eta ikasle ohi guziak bildu nahi dituzte, denek elkarrekin jo eta besta egun ederra ospatzeko. Aitzinetik, ordea, bertze hainbat ekitaldi prestatu dituzte. Maiatzaren 6an Elizondoko Musika Eskolako ikasleen kontzertua antolatu zuten; joan den aste hondarrean, Eskusoinuaren Asteburua egin dute, akordeoiaren arlo ezberdinak landuz. Ekainaren 2an, eguerdian Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Labaiengo elizan.**

LEHENGO LIBURUTEGIAN MOLDATU DUTE EGOITZA BERRIA

# Doneztebeko Udal Musika Eskola berria ekainaren 16an zabalduko da

**Aitor AROTZENA**

Gaur egun, Doneztebeko San Miguel ikastetxean ematen ditu klaseak musika eskolak, ikasgelak libratzen direnean, arratsaldeko 5etatik aitzinera. Ekainaren 16tik aitzinera beraien egoitza propioa izanen dute eta hori funtsezkoa iruditzen zaie bederatzi irakasleei. Jon Irazoki beratarrak dioenez, *«oraindik ez gara ohartzen ere egoitza hori izanen dugunik. Agindu agintzen ziguten, baina agintariek urruti ikusten baldin bazuten, guk urrutiago oraindik. Uste baino abudoago egin digute eta poz handia ematen du. Eskolan ere ez gaude gaizki, baina zure gela izatea, zure instrumentuak bertan utzi ahal izatea, zure giroa sortu ahal izatea, eta gainera ordutegi aldetik flexibilidade handiagoa duzu. Gero, gure lanak egiteko ez genuen ez ordenagailurik ezta musika ikasteko gelarik... Musika eskola berrian berriz, material aunitz izanen dugu»*.

Hasiera batean, gaur eskaintzen duten ikasgaiekin segituko dute, baina egoitza berriak zerbitzu berrietarako aukera ere zabalduko die. Epe luzeagora informatikarekin lotutako zerbait antolatzea pentsatua dute. *«Horrek bertze baldintza batzuk eskatzen ditu* –dio Irazokik– *baina bai irekitzen dituela bertze bide batzuk oraindik landu behar ditugunak»*.

### Esku Soinuaren Asteburua antolatu dute lehen aldiz

Joan den aste hondarrean, Esku Soinuaren Asteburua antolatu zuten Doneztebeko akordeolariek lehen aldiz. Josu Juanena doneztebarrak erran digunez, akordeoiaren arlo ezberdinak erakutsi nahi izan dituzte hiru egunez. *«Egun bakoitzean akordeoiaren alderdi bat erakutsi nahi izan dugu: ortziralean akordeoi klasikoa izan zen, larunbatean erromeria Santa Luzia*

| MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEAK |
|---|
| **Iñaki Dieguez** |
| Zuzendaria eta akordeoi irakaslea |
| **Garbiñe Leiza** |
| Pianoa eta musika hizkuntza |
| **Jon Irazoki** |
| Txistu, abesbatza eta musika hizkuntza |
| **Josu Juanena** |
| Musika hizkuntza |
| **Javier Etxeberria** |
| Saxoa eta klarinetea |
| **Igor Telletxea** |
| Bateria |
| **Ruth Etxebeste** |
| Pandereta |
| **Agustin Merino** |
| Gitarra |
| **Mikel Ripodas** |
| Tronpeta eta banda |

*Plazan eta igandean Irun eta Doneztebeko akordeoi orkestrak».*

Jon Irazokik aipatu digu urtero saiatzen direla kontzertuak eskaintzen, *«bertzenaz ikasleak helbururik gabe gelditzen dira eta kontzertuak programatuta ikasleak motibatzen direla eta gehiago saiatzen direla iruditzen zaigu».*

Doneztebeko Musika Eskolak aspaldiko urtetako ikasle kopururik handiena aurten izan du, 127 inguru. Garbiñe Leitza ittundarrak adierazi digunez, Malerrekako ikasleak hurbiltzea da Musika Eskolaren borroketako bat. *«Inguruko herrietatik etortzen dira ikasleak baina nahiko gutti. Alde batetik, mugitu behar direlako, kotxea behar dute eta gurasoak horretarako prest egon behar dute. Bertze aldetik, Doneztebeko Udalak bertako ikasleen kuotaren erdia ordaintzen du, baina bertze herrietako udalek ez. Orduan, azkenean inguruko herrietakoek Doneztebeko ikasleen doblea ordaindu behar dute. Bi arrazoi horiengatik Malerrekako bertze herrietako ikasle nahiko gutti ditugu».*

**...ETA EKAINAREN 16AN INAUGURAZIO OFIZIALA**

Ekainaren 16ko egitaraua oraindik prestatzen dira, baina aurrerapen bat ere egin digu Jon Irazokik. *«Ideia bat egiteko, lehenbiziko gauza egin nahi duguna zera da, hemengo ikasle eta batez ere ikasle ohi guziak edo gehienak bederen biltzea da. Kalejira bat eginen dugu, txistulariak alde batetik, banda bertzetik, akordeoiak eta trikitixak... Gero meza izanen da eta ondotik eskolaren bedeinkapena eginen da. Kontzertu labur-labur bat eskainiko dugu ikasle batzuen eskutik. Poteoa eta bazkaria ere eginen dugu. Bertan ikasi edo eskolarekin harremana izan duten guziak, guraso, lagun... gonbidatuak daude».*









## Garbiñe LEIZA *Piano irakaslea*

# *"Inguru honetako apezak hasi ziren eguerditan solfeoa erakusten"*

**Noiz eta nola hasi zen lanean Doneztebeko Musika Eskola?**

Datu zehatzik ez dut, baina hemen inguruko apezak hasi ziren, eguerditan eskoletan solfeo erakusten: Sunbillan dagoen Basilio, Doneztebeen zegoen Jose Maria, Iturenen eta Elgorriagan egon zen Tiburtzio... Hortikan, batzuk animatu ginen Iruñerajoatera, azterketak egitera... Duela hogei urte inguru sortu zen musika eskola, Iruñeko irakasle batzuk kontratatu zituzten eta arratsaldetan hasi ziren bizpahiru instrumenturekin. Solfeo, piano, esku soinua eta horrela hasi ziren eta pixkanaka gaur egunekora ailegatu da. Hemendik aitzinera oraindik hobe joatea espero dugu.

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 7.100 ale

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Herriko Etxeko Plaza, 1
E-31780 BERA (Nafarroa)
Tfnoa:(+34) 948 63 11 88
Faxa:(+34) 948 63 12 91

**www.topagunea.com**
**ttipi-ttapa@topagunea.com**

**Jabea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, S.L.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Erredakzioa:** Aitor Arotzena, Rakel Goñi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena, Alba Fernandez, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Frederick Berruet, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelterena, Aitor Arotzena, Asier Gogortza, Rakel Goñi.
**Kolaboratzaileak:** Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...
**Inprimategia:** Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta Sarako udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 21 € |
| Espainia | 21 € |
| Ipar Euskal Herria | 33 € |
| Europa | 33 € |
| Amerika | 103 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka, Leitza eta Areso | 18 € |

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



## • KOLABORAZIOAK •

# Baztango Erdizen harrobia?



## Harrobia egiteko edo ez egiteko azken hitza Baztango Udalak du

**Joseba OTONDO BIKONDOA** Erdizen Aldeko Batzarreko kidea

Magna enpresak harrobia egin nahi du Erdizen. Zubiriko harrobia agortu hurren dute, eta Dominique Bamas Magnako zuzendariaren erranetan urte bat edo biren buruko harrobi berriarekin hasi nahi dute. Eginahal horri buruz Erdizen zundaketak egiten ari dira, eta ez nolanahikoak, "ustirakuntza" zundaketak baitira, harrobia egiteko bidean azken zundaketa klasea. Zundaketak egiteko Magnak aurkeztutako ingurugiro eragin txostenean erraten den bezala, lehenagotik dituzten datuak baieztatu bidenabar, harrobi proiektuaren bideragarritasuna neurtu nahi dute. Datu hauen arabera, jakin badakite Erdizen harrobi ustirakuntzarako 25 milioi tonelada egoten ahal dela. Hortaz aski garbi dago oraingo zundaketak harrobia egiteko bidean azken urratsa bertzerik ez direla.

Erdizi buruz ari gara solasean, duen balio ekologikoarengatik Komunitatearendako Toki Garrantzitsu (LIC) izena duen goi mendi ingurua, eta Baztango herri-bazkatokirik handiena. Toki horretan harrobia egitekotan, akabo betiko inguru hori. Zeren harrobia zerbait baldin bada toki baten desagertzea baita, betiko desagertzea. Baino horrekin batean harrobi inguruaren betiko hondatzea. Zeren harrobiko lehengaiak han berean tratatzeko azpiegiturak sortu beharko bailituzkete eta horiek elikatzeko tentsio handiko lineak Erdizeraino eraman. Lehengaiaren xehatzeak alimaleko kutsadura akustikoa sortzen du kilometrotan hedatzen dena eta horren ondorio den errautsak inguruko ohian, belagi eta mendiak erreko lituzke horrek ekar ditzakeen ondorio guztiekin flora, faunan eta hango habitatetan. Leherketak ere noiznahi izanen lirateke eta material guztia garraiatzeko bide berria egin beharko litzateke tonelada handiko kamioien joan etorria jasateko...

Hori bai... Betikoek sakela ongi betetzeko. Ez baita atzentzen ahal Magna espainiar estatuko 1000 enpresa errentagarrienen artean dagoela eta Magnako jabeak Rouiller eta Grecian Magnesite direla, urtero ehundaka milioi euro (milaka milioi pezeta) irabazten dituzten multinazionalak. Guzti hau natur baliabide guztien xehatzean oinarritzen den garapen eredu desarrollistaren uztarrian gertatzen da, azkenean gizarteko bizibaldintzen hondatzea ekartzen duena eta batez ere, tokiko bioaniztasun, gizarte interes eta komunitatearen kulturan oinarritutako garapen integraleko aukera oro urratzen duena.

Azken hitza harrobia egiteko edo ez egiteko udalak du...

> «Magna espainiar estatuko mila enpresa errentagarrienen artean dago eta Magnako jabeak urtero ehundaka milioi euro (milaka milioi pezeta) irabazten dituzten multinazionalak»




Bidali
**ttipi-ttapa**
herritik kanpo bizi diren
lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastua
ordaindu behar da
Eskatu informazioa

✆ (+34) 948 631188

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Hizkuntzen arteko benetako parekotasuna

Lekaroz-Elizondo BHI-ko Klaustroak Nafar Gobernuko Hezkuntza Departamentuak martxoaren 27ko 89/2002 Foru Aginduan euskarari ematen dion trataera dela eta, gure desadostasuna adierazi nahi dugu. Bertan, bertzeak bertze, ordutegia zehazten da.

Egitura eta Ordutegia atalean, laugarren artikuluko 2. puntuan erraten da: *«los alumnos que cursen Bachillerato conforme a los modelos D o A dispondrán de tres horas en cada uno de los cursos para el estudio de la Lengua Vasca y Literatura...»*. Bertzetik, legearen I Gehigarrian, D ereduan, Gaztelania eta Literatura arloari, Batxilergoko bi mailetan astean launa ordu esleitzen zaizkio.

Aitzineko 43/1998 Foru Dekretuak agintzen zuena aldatzen du bi arloetako ordutegian.

Hezkuntz Administrazioak eskaintzen duen argudio bakarra "Nafarroaren errealitatea" da. Dirudienez, ikasleen aukera berdintasuna bermatzeko, batxilergoak egitura bakarra behar du izan, ikasleek dena delako eredua hautatu dutela ere.

Gure iritziz, aldaketa honek zalantzan jartzen du Batxilergoko curriculum eta egitura arautzen dituen martxoaren 15eko 62/2002 Foru Dekretuko 13.a artikuluan ageri den helburua: *«dominar la lengua castellana, y en su caso, la lengua vasca.»*

Erabaki honek Euskal Hizkuntza eta Literatura arloaren izaera instrumental eta gidatzailea kolokan paratzen du eta ikasle euskaldunen oinarrizko eskubideak urratu.

Bertzalde, Ikuskaritza Zerbitzuak 2. eta 4. D.B.Hn egin nahi dituen kanpo ebaluazioetan, nabarmena da berriro ere ez direla bi eredu linguistikoetako ezaugarriak kontuan hartu. Gaztelania eta Literaturaren neurketa probak bi ereduetan egiteko asmoa badago ere, Euskal Hizkuntza eta Literaturarena, berriz, D ereduan soilik eginen da. Berriro ere, hizkuntzen trataera desberdinarekin egin dugu topo, euskararen kaltetan.

Hizkuntza bati ez bazaio ematen trataera zuzena Hezkuntzan, zer sinesgarritasun izanen du? Nork, nola, zertan oinarrituta eta zer asmorekin erabaki lezake hizkuntzak duen balioa? Neurtu al daiteke hizkuntza baten balioa? Zein ezaugarri bete behar ditu hizkuntza batek hizkuntzatzat hartua izan dadin?

Gogoeta hauek bultzaturik, hizkuntza desberdinen arteko benetako parekotasuna eskatzen dugu; eta horretarako beharrezkoa da 89/2002 Foru Agindua geldiarazi eta nahitaezkoak diren aldaketak egitea.

**Agustin Olabe Oskaritz**
**Lekaroz BH1ko Irakasle Klaustroko Lehendakaria.**

## Larrungo iparraldea sutan

Aintzin hortan pixtu diren suek izan dute ondorio gehien mendietan. Larrungo mazel horiek ere belztu dire, ez bat ez bi, hain zen otea nausitua eta haizea azkar. Ikusi ditugu su begiraleak, kaskoz kasko, zonbeit urrundik, Landesetaik etorriak, gau eta egun beren berribil gorriekin mendian gora ibiliki. Denek ongi jan dire hemen malurik gabe jaun goikoari esker.

Geroztik bildu dira Baionan, egunkariek diotenaz, delako "ecolo" batasunen buruzagiak otsailaren 15an eta jaun prefetari gutun bat bidali, erranez aurreratzean behar litekela eman ahal eta podere gehiago herriko hautetsieri.

Gogoan daukate, Azkaindarrek, zer salsa eta nolako trabak ezarri zituzten "ecolo" horiek berek, duela 4 edo 5 urte, beharrik, orduko jaun mera barne, artzain eta nekazariek, bat egin zuten bide zaharra garbitzeko eta lekuka zabaltzeko. Berandu bada berandu non baiteko "ecolo" oriek ohartu dira.

Ainitz lekutan zorigaitzez sua nausitu da eta ixtripu nigargarriak gertatu. Jendea ere, erran behar da, alde guzitarat mintzatu.

Holako kasutan, so egin behar liteke gehiago, lekuko jende trebeari. Hola nola, adibidez, Esterenzubiko jaun auzapezari, telebistan erran duelarik "Bai , sasiak erre behar du, ahatik ez dira jokabide berdinak erabili behar Zuberoko kaskoetan, Irratiko mendietan ez eta ere Larrungo larretan" Hori baita, gure iduriko , egi handia.

**Jean Baptiste Barreneche.**
**Xeruen Borda**
**(Azkain)**








Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa
Kontonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218






BORTZIRI
UNSION ANAIAK
sukalderako haltzariak
ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

H. Lopez
iturgintza
- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industriala
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

## • PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Diario de Noticias 02-05-12

*«EHNE erakunde osoan eta maila guzietan aldaketa handiak somatu dira 1998ko hauteskundeen ondotik. Emaitza haien ondorioz, ardura handiagoa somatu dut nik. Hori horrela da eta horri erantzun egin behar zaio, eta horrek tresneria ongi prestatua izatera behartzen zaitu. Azkenean bat bakarra da eta behar dena erakunde erabat prestatua izatea da. Horretarako, IV. Kongresu hau aitzin pausua izan da».*

Mikel PETRIRENA
Sunbillako baserritarra
EHNEko idazkari ohia
D. Noticias 02-05-12

*«Oso gogorra izanen da finala, Mindegia ongi ikusi baitut eta Nazabal final-laurdenetan lan ona egina dago; edozeinek irabaz lezake».*

*«Lan erdietarako alde handia atera diot, eta ohartu naiz Olasagastik nahikoa lan bazuela segitzearekin. Ez dut uste Olasagastik dena eman duenik, atzetik ari zela ikustearekin behera egin du».*

Donato LARRETXEA
Arantzako aizkolaria
Egunkaria 02-05-16

## • 11 GALDERA LABUR•



### Ainhoa ALZURI ORDOKI *Arantzako sukaldaria*

**Nola gogotu zitzaizun sukaldari izatea?**
Ttiki-ttikitik bizio bat izan da sukaldeko saltsa neretzat.

**Afizioz edo ofizioz sukaldari?**
Orain ofizioz, baina lehengo afizio hura ofizio bihurtzeko lana egin dut.

**Sukaldariek etxeko otorduak prestatzen ez dute denbora aunitz pasatzen...**
Ez da nere kasua. Ez da gezurra, halere, etxean ditudan bi amak hagitz onak direla sukaldean.

**Etxekoa ala zurea?**
Etxekoa dudik gabe. Nik oraindik gehiago ikasi beharra dut.

**Beraz, irakasle onenak etxean?**
Etxean eta lanean, eta lanekoa lehengusua denez, dena familian!

**Makarroiak bexamelarekin edo gabe?**
Buf, pastakia bexamela, gazta, esnegaina... edo bakarrik olio eta baratxuriz egindako refritoarekin, ze ona!

**Azukre koxkorra edo bolloa?**
Bollo onak badaude, baina oraindik azukre koxkorrik ez dut harrautu.

**Platerik gogokoena?**
Dena gustatzen zait, baina janari naturalak, espezierik gabekoak.

**Besta egunak eitze tartean?**
Gehienean bai, bino ezin naiz kejatu oraingo ordutegiarekin. Biharamunak aguantatzeko lanak zenbaitetan.

**Zuretzat afari on bat?**
Baratzean ari, parranda batzuk, irakurri eta lo asko egin.

**Zein da zure ametsetako bidaia?**
Neguan taloak edo opilak gaztarekin. Bertzela, osagai pilo batekin osatutako entsalada.

**Jatetxe bateko nagusi izateko ametsik?**
Gaztea naiz eta gaztetasuna bizi nahi dut. Etorkizunean ere sukaldari ikusten dut nere burua. Non, ez dakit.












KULTURA

# Inguruko ikastetxeetako ikasleen musika kontzertuak eginen dira

## Ekainaren 7an hasiko dira Doneztebeko pilotalekuan

**ttipi-ttapa**

Urtero bezala, ikasturte bukaera hurbil dagoela aprobetxatuz, inguruko DBH ikastetxeetako ikasleek musika kontzertuak eskainiko dituzte. Aurtengoan, Leitza, Lekaroz eta Doneztebeko ikastetxeetako ikasleei Altsasukoak gehituko zaizkie, 2001-2002 ikasturteari bukaera emateko musika emanaldietan.

Kontzertu hauetan, aipatutako lau herrietatik etorritako 450 ikasle bilduko dira, ikasturtean musika arloan landu eta ikasitakoa jendaurrean eskaintzeko helburuarekin. Lehenbiziko kontzertua ekainaren 7an, ortzirala, eginen da Doneztebeko pilotalekuan, 17:30etan. Ekainaren 13an, ortzeguna, Altsasuko kiroldegian bilduko dira musikariak, ordu berean. Ekainaren 14an, ostirala, Leitzako frontoian izanen dira eta ekainaren 17an, astelehena, Lekaroko kiroldegian.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Batxilergoko lehen eta bigarren mailako ikasleei zuzendutako ipuin historiko lehiaketan lehendabiziko saria eskuratu du Mirari Maiz, Berako TokiOna Institutuan ikasten duen 17 urteko aranztarrak. Nafarroako Unibertsitateak eta Emakumearen Institutuak antolatutako lehiaketara, «Errege baten itzalean» euskaraz idatzitako kontakizuna aurkeztu zuen Mirarik, Nafarroako Blanca erreginaren gorabeherak agertuz. Argazkian, Mirari ageri da –goitian, ezkerretik hasita bigarrena–, lehiaketa honetara lanak aurkeztu zituzten Toki Onako bertze ikasleekin eta Jose Javier Fernandez irakaslearekin.**

Kantutegiari dagokionez, denetatik entzuteko aukera izanen da: musika klasikoa, zonaldeko dantzak, musika herrikoia, rock-a... hau guztia, hitzezko gidoi eta mugimenduan oinarritutako koreografiez inguraturik. Musikaren inguruan parada atseginа eskaintzen dutela eta, lau ikastetxeetako partaide guziek kontzertu hauetara hurbiltzeko gonbitea luzatu dute lerro hauen bitartez.

LANA

# 585 langabetu Doneztebeko INEMen

Apirilean 585 lagunek emana zuten izena Doneztebeko INEMen, martxoan baino 21 guttiago. Otsailetik martxora 31 langabetu guttiago izan zirela kontuan hartuz, bi hilabetez 52 langabe guttiago daude eskualdean. Nafarroa osoan ere beheiti egin du apirilean langabeziak.

Langabetuen adinari dagokionez, 25 urtez beheitiko 38 gizaseme eta 46 emakume eta 25 urtez goitiko 183 gizon eta 318 emakume zeuden langabezian apirilean. Bi adin multzotan gizon guttiago daude lanik gabe, baina emakume langabetuen kopurua mantendu egin da gazteenen kasuan eta igo 25 urtez goitikoetan.

Sektoreka, zerbitzuetan 325 langabetu zeuden, industrian 163, eraikuntzan 41 eta nekazaritzan 6, aitzinetik lanik egin gabeko 50 langabetuekin batera.

Apirilean 409 kontratu egin ziren eskualdean, horietatik 100 mugagabeak.

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA
LESAKA:
• Astelehenetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050
BURLATA:
ARTEKARI, S.L., ✆ 948133328-133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak

ZALAIN JATETXEA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain Auzoa
✆ 948631106
BERA

Lanchas
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
Bera ✆ 948630735 - 607 406781

BERA

# Maiatz akabaila arte izanen dira Mugaz Gain antzerki jardunaldiak

Aurten 8. edizioa beteko dute haur eta gazteen antzerki jardunaldiek

Asier GOGORTZA

Bortz egunetan banaturik 12 antzerki obra aurkeztuko dira Lamixine BATek antolatzen duen Antzerki jaialdian. Berako eskoletako ikasleez gain kanpotik etorritako ikastola eta eskolek ere izanen dute modua beraien lanak erakustera emateko.

Obra horietako batzuk ikasleentzat bakarrik egonen dira ikusgai goizetan, bainaarratsaldetan ere zenbait obra antzeztuko dira publiko guzientzat. Ondoko hauexek dira, hain zuzen ere: Maiatzaren 24an Doike antzerki taldeak Inperfektoa izan nahi dut aurkeztuko du arratsaldeko 8etatik aitzinera. Maiatzaren 30ean, berriz, Labiaga Ikastolako ikasleek, Lau Kato antzerki taldekoek eta Antzeko Parezidokoek eskenaratuko dituzte euren lanak. Biharamunean Jesusen Bihotza eta Rikardo Barojakoak izanen dira. Emanaldiak 18:30etan a izanen dira, Kultur Etxean.




Argazkia: Asier GOGORTZA

**Jende andana bildu zen Jon Abrileri elkartasuna adierazteko maiatzaren 5ean egin zen mendi ibilaldian, adin guzietako jendea bildu ere. Herritik ateri eta Dornakun barna itzulixka egin zuten ibiltariek, beti ere Abril errugabea dela eta haren kontra egiten ari diren epaiketa lotsagarria dela aldarrikatzeko asmoz. Elkartasun froga gehiago ikusi dira herrian, karrikatan proposamenak eta elkartasun mezuak jasotzeko jarritako panpinak errate batera.**

TXOTXONGILOAK

### *Txotxongiloen historiari buruzko erakusketa ikusgai dago ekainaren 2a bitarte*

Corrado Masacci italiarrak 16 urtetako lanaren ondotik sortutako txotxongiloen erakusketa jarri dute Kultur Etxean. Txotxongiloen mundua ezagutzeko aukera ezinhobea izan daiteke, bertan erakutsiko baitira aitzinako eta gaur egungo hainbat marioneta eta maskara.

Ekainaren 2an, Nikaraguako Guachiplin txotxongilo taldeak bi emanaldi eskainiko ditu Kultur Etxean, arratsaldeko 5etan haurrentzat eta 8etan helduentzat.



**Corroado Masacciren bilduma ikusgai dago Kultur Etxean.**

FLASH

### *"El hijo de la novia" filmea zine-klubean*

Ortzegun honetan pelikula argentinar arrakastatsu hau ikusgai izanen da Kultur Etxean. Hitzordua, beti bezala, arratseko 8,30etan.

### *ERTZ, ekainaren 6tik 9ra*

Aurten musika esperimentalari eskainitako jaialdi hau hirugarren aldiz ospatuko da Beran, eta inoiz baino egitarau erakargarriagoa prestatu dute antolatzaileek. Aitzinduko dugu musikaz gain zineak protagonismo berexia izanen duela aurtengoan. Hurrengo TTIPI-TTAPAn berri gehiago.

### *1967ko kintoen afaria*

1967an Beran sortutakoen kinto afaria ekainaren 1ean eginen da Zalain jatetxean. Horretarako izena maiatzaren 30a baino lehen eman behar da Zalainen berean (948631106). Afaltzera joateko arratseko 9etan gelditunko dira Errekalde ostatuan.

### *Udal zergak*

Maiatzaren 6tik ekainaren 8ra arte zabalduta dago 2002. urteko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea. Ondoren, ordain-agiri hauek exekutibo bidez kobratuko dira, premiamendu errekargua, atzerapen interesak eta gerta daitezkeen bertze gastuak gehituta.

ie Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekaritza
• Aseguruak
Kanttonberri 1 • BERA • Tel eta Faxa: 948 631169

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 948 630 370 • BERA

JAIONE-GOZOTEGIA

## LESAKA

# Euskal selekzioaren aldeko ekimenak karrikan eta Udalean

### «Euskal Herriak Kirola, Kirolak Euskal Herria» eguna egin zen

Aitor AROTZENA

«Euskal Herriak Kirola, Kirolak Euskal Herria» izenburupean, euskal selekzioaren aldeko eguna egin zen maiatzaren 5ean, Lesakako ESAIT eta Bai Euskal Herriari erakundeek antolatuta. Mastegin, Euskal Herriko beteranoen konbinatu baten eta Lesakako konbinatu baten arteko futbol partida jokatu zen. Xanti Bakero, Gajate, Luis Perez, Orbegozo edo Urbieta futbolari ohi famatuak aritu ziren Euskal Herriko taldean. Herriko taldean berriz, gaur egun Beti Gazten ari diren jokalariekin batera, duela urte batzuk futbola utzitakoak ere aritu ziren. Hiruna akautu zuten, baina guttienekoa emaitza izan zen. Euskal selekzioaren aldarrikapena eta besta giroa nagusitu ziren bai zelaian, baita harmailetan ere, Los Incansables txarangaren laguntzarekin. Atsedenaldian, sokatira saioa ikusteko modua izan zen. Herriko taldea Oiartzungo Auzolan taldearen kontra aritu zen eta Beti Gaztekoak nahiko aisa gailendu ziren bi tiraldietan. Gero herri bazkaria egin zen Irain eskolako pilotalekuan. Bazkalondoan, Martxel Toledo, ESAITeko koordinatzaileak solas batzuk egin zituen, Lesakak egun hau antolatzen egin duen lana eskertuz eta herri garen neurrian euskal selekzioaren beharra azpimarratuz. Manolo Arozena, Ekhine Etxepeteleku eta Alaitz Rekondo bertsolarien saioa ere ildo beretik joan zen.

Arratsaldean, bertsoa eta pilota uztartu ziren udal pilotalekuan. Rafa Errandonea aranztarra, Iñaki Larralde herriko pilotari gaztearen kontra aritu zen, lau terdiaren barrenean. Bittor Elizagoien izan zuen botillero aranztarrak eta Larraldek, Manolo Arozena. Errandonea III., 22 eta 15 nagusitu zen.

Bertze aldetik, abuztuan Iruñean jokatuko den Munduko Pilota Txapelketan pilotari euskaldunek Euskal Herria ordezkatzeko duten eskubidea errespetatzea eskatzen zuen mozioa ahobatez onartu zuen Udalak. Euskal herriari Nazioarteko Federazioko kide izateko eskubide osoa dagokiola ere aldarrikatzen zen onartutako agirian.





ARGAZKIAK: LEIRE PORTUK UTZIAK

**Euskal Herriko konbinatuak eta Beti Gazteko taldeak, goitian futbol partida hasi baino lehen eta beheitian sokatira saioan.**

## IKASTAROAK

### *Herriko toponimia, Geriatria eta «Informatika eta Interneten hastapenak» ikasgai Herri Eskolarekin*

Herri Eskolak hiru ikastaro interesgarri proposatu ditu ekainerako. 16 urtetik goitiko emakumeentzat «Informatika eta Internet-en hastapenak» ikastaroa prestatu du, Nafarroako Emakumearen Institutuaren laguntzaz. Ekainaren 3tik 7ra emanen da eta izena emateko epea maiatzaren 26an akautuko da, 6 euroren truke.

Bertzalde, maiatzaren 31n eta ekainaren 7, 14 eta 21ean Geriatria ikastaroa emanen da, 17:30etatik 20:00etara ikastolan. 12 euroren truke okindegian izena emateko epea maiatzaren 26an akautuko da.

Azkenik, herriko leku izenak edo toponimia ezagutzeko hiru mendi ateraldi gidatu eginen dira auzoz auzo larunbat goizetan, ekainaren 8, 15 eta 22an, Joxe Manuel Igoa herriko gaztearekin. Izen ematea ekainaren 5a baino lehen egin behar da (6 euro).

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA
Peñen blusak egiten dira enkarguz

ANA janaridenda
Bittiria 41 • ☎ 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

ETXALAR

# Ekainaren 2an ospatuko da X. Gasna eta Artisau Feria Eguna

## Maiatzaren 10 eta 11n herrian izan zen Bidasoako txirrindulari itzulia

Joseba eta Nerea

Aurtengoan hamargarren aldiz ekaineko lehendabiziko asteburuan, Gasna eta Artisau Feria eguna eginen da Altxata Kultur elkartearen eskutik. Goizeko hamarretatik aitzinera herriko frontoiak itxura desberdina hartuko du artisau eta eskulangile andana bilduko baita harat. Honetaz gain, urtero bezala Gasna lehiaketa eginen da. Honetan, herri desberdinetako gasnak parte hartzeko aukera izanen dute eta epaileek goiz osoa izanen dute zein den aurtengo gasnarik onena erabakitzeko. Goiz osoan taloak izanen dira saltzeko eta eguerdi partean herriko haurrek trikitixa emanaldia eskainiko dute. Eguerdiko biak aldera gasnan sari-banaketa izanen da eta ondotik herri bazkaria. Bazkari honetara joan nahi duenak herriko ostatuetan izanen du eskuratzeko aukera 15 Etan. Eguna ongi akautzeko, arratsaldeko seietan herriko Andre Mari dantza taldeko dantzari gazteenek dantza saioa eskainiko dute. Egun ederra pasatzeko aukera bertze urte batez.




ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

**Bidasoako Itzuliaren etapa akabaila eta hasiera herrian izan ziren.**

### *XXX. Bidasoako Itzulia*

Bidasoako txirrindulari itzuliaren XXX. edizioa maiatzaren 10ean ailegatu zen Etxalarrera. Egun horretan hirugarren etapa gure herrian akautu zen, eta hurrengo egunean ere etxalartik ateri zen. Itzuli hau zela eta eguerdi partetik antzinera plaza ingurua arras itxuraldatu zen. Helmuga elizako eskaileren parean jarri zuten eta sari banatzea frontoian. Horretarako furgoneta bereziak ekarri zituzten eta publizidade ugarirekin bete zuten plaza. Azkenean, arratsaldeko bortzak laurden gutiagotan lehenbiziko txirrindulariak zeharkatu zuen helmugako marka. Cropusa taldeko Pablo de Pedro izan zen garaile eta bere gibeletik Itera taldeko Oleg Rodionov eta Wurt-Once taldeko Alberto Contador gelditu ziren.

Udalak itzulia Etxalarrera etortzeagatik 2.704,55 euroko dirulaguntza eman zuen eta gainera etapa irabazlearen trofeoa ere banatu zuen. Lan horretan Migel Mari Irigoien alkatea eta Patxiku Irisarri zinegotzia aritu zen.

Hurrengo egunean, maiatzak 11, goizeko hamarrak laurden guttitan atera zen berriz ere laugarren etapa Irungo San Martzial gainera joateko. Eguraldiak ez zuen batere lagundu, baina jende ugari bildu zen txirrindulariak animatzera.

FLASH

### *Jon Arretxe kultur etxean*

Gasna Feria egunaren aitzakian ortziral horretan, maiatzaren 31n, 20:00etan Jon Arretxe idazleak emanen dio estrenoa Kultur Etxeari. "Zazpi Kolore" bere azkeneko liburuan oinarrituz munduan barna egindako bidaien berri emanen du diapositiben laguntzarekin, Euskara Batzordeak antolaturiko ekimen interesgarrian.

### *Lehen jaunartzeak*

Maiatzaren azkeneko igandean, 26an, Etxalarko 6 haur lehenengo jaunartzea hartuko dute: Eñaut Iparragirre, Leire Telletxea, Ibai Gallardon, Ane Ameztoi, Iñaki Tomasena eta Irune Elizagoienek.

Javier Manterola
TEKNIKO INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 - BERA

BAR Botxo OSTATUA
✆ 948630052-Zalain-BERA

OBRA PROIEKTUAK
✓ Etxe berriak eraikitzeko
✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
✓ Urbanizazio proiektuak
✓ Obra-zuzendaritza
BIDASOA arkitektura bulegoa
Bittiria, 45 • ✆ 948 637 503 • LESAKA

HERRIKO
OSTATU - JATETXEA

ANSONEA jatetxea
Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia
Foruen Plaza 1 • ✆ 948 631155 - BERA

IGANTZI

# Aranztar eta igantziar nekazariak Igantzin ospatu zuten patroi eguna

Igerilekuen enkantea maiatzaren 24ra arte luzatu da

**Oskar TXOPERENA**

San Isidro eguneko urteroko bilkura eta besta egin zituzten aranztar eta igantziar nekazariek. 45 lagun bildu ziren denetara, 16 arantzakoak eta 29 igantzikaoak, lehendabizi meza ospatzera eta gero La Villan bazkaltzera. Bazkal ondoko besta arantzako trikitrilariekin izan zuten.



Oskar TXOPERENA

**Iazko argazkian ikusten ahal den bezala, jende alde polita biltzen da udaberri partean San Migueli egiten zaion harrerara. Aurtengoa maiatzaren 2an izan zen. Bertzalde joan den igandean ospatu ziren aurtengo lehenengo jaunartzeak, haur talde politarekin gainera: Julen Taberna, Oihane Aldabe, Naiara Telletxea, Naroa Loinaz, Arkaitz Retegi, Eneko Telletxea eta Iker Rojo.**

## *Igerilekuak*

Igerilekuaren ardura hartzeko maiatzaren 10erako paratua zegoen epearen barrenean eskaintza bakarra aurkeztu zen Herriko etxean. Egun berean egindako bilkuran, ordea, zinegotziek ez zuten eskaintza onartu garestiegia zelako eta epe berria irekitzea erabaki zuten, maiatzaren 24ra bitartekoa. Oraingoan oinarrizko edo hasierako diru kopurua 5.000 eurotara altxatu dute.

## *Pilota kontuak*

Bortzirietako Banakako Txapelketaren finalak jokatu berriak dira Lesakan. Sei zapeletatik bi etorri ziren Igantzira: Ane Sainz eta Iñaki Seinek ekarritakoak. Arkaitz Retegi, berriz, bigarren sariarekin itzuli zen herrira. Orain, Imanol Goienetxe eta Lander Arriola lesakarraren arteko finala gelditzen da jokatzeko. Ea hirugarrena ere etortzen den!

Bea Lizardik, bertzalde, Iruritan jokatutako emakumeen pala txapelketa ere irabazi du. Finala maiatzaren 11n jokatu zen, Iruritako besten barrenean. Zorionak Beari ere!

## *Port Aventura*

Duela hilabete inguru Salouko Portaventura parkera joateko bidaia antolatu zuen Biltoki Ttiki Elkarteak. 27 lagunek egun berean egin zuten autobusez joan-etorria, goizeko 3ak aldera atera eta arratsean berandu itzuliz.

Herria ezagutuz



## *Latsagako iturria*

XVIII. mendearen erdi aldera erabaki zuten igantziarrek Latsagako Iturria edo ezagunagoa eginen zaigun Herriko Iturria egitea. Arango Elutsara (Ankulutsara) joan behar izaten zuten ur garbia eske, eta herrira hurbiltzea erabaki zuten. 1747an enkantera atera zuten lana eta arantzako Bernardo de Chango arginak egin zuen eskaintzarik hoberena: *«Bernardo de Chango, oficial cantero, vecino de Aranaz (...) fue rematada el conducir la fuentte prinzipal que nacia en Aranaco Elussa al varrio de Lassaga»*. Lan anitz egin zen auzolanean ere, zuloak ireki eta itxi, errate baterako: *«cinco dias en las auzalanas de terraplenar la zequia (...) en las vegas de las casas de Pedurena y Echeverria»*. Iturriaren teilatua, berriz, hogei urte geroago, 1767an, egin zen, eta zenbait kalte ordaindu behar izan zitzaizkion Iribarrena eta Uhaldeako jabeei: *«daño de hazer el cubierto de la fuente de agua de Latsaga»*. 1928an paratu ziren gaur egun dauden arropa garbitzeko harriak, 22na pezetan.

bortzIRUDI
BERA
FOTOKOPIAK
ENKUADERNAZIOAK
PLASTIFIKAZIOAK
FAXA E-MAILA
SKANNERRA
PAPERTEGIA
ARGAZKI MUNTAIAK
DISEINU GRAFIKOA
INPRENTA LANAK
SERIGRAFIA
ERROTULOAK
PUBLIZITATEA
Eztegara 26 behea Tel.- Faxa: 948 63 15 21

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.
Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

Rafa: 600 819 640
Jose: 666 235 466
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ARANTZA

# Zorionak Arantza!

## Maiatzaren 11n Nafarroako Herri Kirol Jolasen finalean bi txapel jantzi zituzten kirolari gaztetxoek

**Nerea ALTZURI**

Nafarroako Herri Kirol Jolasen txapelketei adio erran diete aurtengoz gaztetxoek. Maiatzaren 11n, hondar asteetako jardunaldiak pasatu ondotik, proba konbinatu eta sokatira finalak jokatu ziren herriko pilotalekuan. Goizetik nabaria zen mugimenta herrian: *«Bestak ematen dute»* entzun genion bati baino gehiagori. Herriko gaztetxoek utzitako emaitza onaren lekuko izan ginen, zaletuekin tanpetaraino betetako pilotalekuan. Kadete eta haur mailako Arantzako neska-mutikoek proba konbinatuko finalak irabazi zituzten, etxean bertan Nafarroako zapelak lortuz.

Haur mailako proba konbinatuan Arantza izan zen irabazle (7'14"), bigarren Andra Mari (7'30"), hirugarren Berriozar (7'35") eta laugarren Putterri (8'42").

Kadete mailako finalak oraindik emozio gehiago izan zuen. Hagitz parean ibili ziren herritarrak eta Etxarri Aranazkoak. Arpanlarien hondar lanean emozio segunduak izugarriak izan ziren, eta azkenean 8'37"ko denborarekin akautu zuten aranztarrek. Bigarren Andra Mari (8'56"), Eunate (8'59") eta Lakuntza (9'44").

Sokatiran ez zen herriko ordezkaririk. Haur mailan Berriozar izan zen garaile, Andra Mari, Iñigo Haritza 1, Iñigo Haritza 2 eta Putterriren aitzinetik. Kadete mailan, berriz, Eunate gailendu zen, Andra Mari, Narbarte eta Lakuntza gibelean utzita.

Protesta gisara eta talde guzien adostasunarekin, sari banaketa «Juegos Deportivos de Navarra» zioen kareteletik aparte egitea erabaki zuten. Nafarroako Gobernuak euskarari zuzendutako bertze eraso hau gaitzetsi zen gogor ekitaldian. Jose Ramon Amoros alkateak, Mikel Goldarazena Gobernuko ordezkariak eta Joxelu Retegi, Herri Kirol Federazioko kideak banatu zituzten sariak.





ARGAZKIAK: EDURNE ZUBIETA
**Haur eta kadete mailako taldeak, Panttaleon Errandonea prestatzailearekin. Bertze prestatzailea, Joxe Ramon Amoros falta da argazkian.**

### Kanpaldiak

Joan den astean, asteazkenetik ortziralera, eskolako lehen eta bigarren zikloko ikasleak Hondarribian egon ziren kanpaldian. Aste honetan, bi egun Zarautzen pasatuko dituzte Haur Hezkuntzako ikasleek. Kanpaldia maiatzaren 23 eta 24an izanen da, adineko gainerako bortziriar neska-mutikoekin batera.



ALBERGEA
JATETXEA
✆ 948 634179
ARANTZA

J. RAMOS
Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut
✆ 948631342 BERA - ✆ 948637172 LESAKA

TOLDOS BAZTAN
TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
Eguzkitik babestekoak (elektriko edo eskuzkoak) • Toldo mugikorrak • Igerilekuetako sareak • Kamioentzako toldoak • Estutzeko uhalak • Aluminio, PVC, Egurra eta Seguridadekoak • Motorizatuak pertsianak altxatu eta jausteko • Kontraleihoak • Estoreak • Eulien kontrakoak...

☎ 948 63 10 03
Fax: 948 63 10 03
Alkaiaga Ind.-Baldrun, 8 • LESAKA - BERA

PERTSIANAK
ERA GUZIETAKOAK, MOTORIZATUAK, ESTOREAK

KULTURA

# Udaberriko Bira ekainean bueltatuko da inguruko herri ttikienetara




Zinea, antzerkia, musika eta dantzak izanen dira

**ttipi-ttapa**

Duela hilabete bat Urrotz eta Narbarte bisitatu zituen Udaberriko Birak eta ekainaren 8tik aitzinera, eskualdeko bertze hainbat herrietara bueltatuko da. Jakina denez, Udaberriko Bira antzerki, musika, zine eta folklore emanaldiez osatutako programa da, Vianako Printzea erakundea eta Kultura Zuzendaritza Nagusiak 200 eta 775 biztanle artean dituzten udal eta kontzejuen laguntzarekin antolatuak.

Ekainaren 8an, 20:00etan «Chicken Run» euskarazko filmea izanen dute Zubietan.

Ekainaren 9an, 11:30etan Helkos abesbatza joanen da Aresoko elizara.

Ekainaren 15ean bi ekitaldi izanen dira gure herrietan. Zugarramurdin, 22:00etan «Los Otros» filmea ikusgai izanen da Akelarre elkartean. Ordubete lehenago, Iturengo Herriko Etxeko ganbaran TEN Pinpilinpauxa taldeak «Un dia cualquiera» antzezlana eskainiko du euskaraz.

Akautzeko, ekainaren 23an Elgorriagako pilotalekuan Oberena folklore dantza taldearen emanaldia izanen dute 19:00etatik aitzinera.



## DONEZTEBE



Argazkia: Amaia MINDEGIA

**Doneztebeko judo eskolako ikasleek bortz domina ekarri dituzte Nafarroako Kirol Jolasen finaletik.**

# Herriko judo taldeak emaitza bikainak eskuratu ditu Nafarroako Herri Kirol Jolasetan

Urrezko hiru domina eta brontze eta zilarrezko bana eskuratu zituen finalean

**ttipi-ttapa**

Doneztebeko judo eskolako neska-mutikoek emaitza ederrak eskuratu dituzte aurtengoan ere Nafarroako Kirol Jolas txapelketan. Guzira 12 judokek hartu dute parte aurtengo txapelketan eta maiatzaren 12an jokatu zen azken saioa Burlatako Elizagibela kiroldegian. Bortz domina eskuratu zituzten Doneztebeko kirolariek, hiru urrezkoak eta zilarrezko eta brontzezko bana. Mutiko infantiletan, 55 kiloz beheitiko kategorian urrea eskuratu zuen Niko Mindegiak. Urrezko bertze bi dominak neska kadeteek lortu zituzten. Itziar Jorajuria irabazle izan zen 57 kiloz beheitiko kategorian eta Noelia Ariztiak ere garaipena erdietsi zuen 48 kiloz beheitiko kategorian. Mutikoen kadete mailan, 81 kiloz goitiko kategorian bigarren izan zen Juanjo Perez de Arriluzea, eta zilarrezko domina golkoratu zuen. 66 kiloz beheitiko infantil mailan, Ibai Ordax-ek brontzezko domina eraman zuen. Aitzineko saioetan bikain aritua zen Cristina Mindegia, 48 kiloz beheitiko kategorian, baina azken saioan ezin izan zuen parte hartu, gehieneko pisua baino kilo erdi gehiago eman baitzuen finaleko egunetan. Bertzenaz, Oskar Mindegia irakasleak aipatu digunez, bertze dominaren bat ekarri ahal izanen zen Doneztebera. Dena den, aurtengoan ere emaitza bikainak izan dituzten judo eskolako neska-mutikoek.

## EZKURRA

# Oihan lanak egin nahi ditu aurten Udalak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin

Udaletxearen apartamentua enkantera atera da

**Peio ZESTAU**

Nafarroako Gobernuaren 2002. urteko dirulaguntza deialdia kontutan hartuz, aurten Ezkurrako Udalak Maloa aldera doan bidea moldatzeko intentzioa du, baita Azkotain inguruan garbiketa batzuk egiteko ere.

Honetaz gain, Makutsolan entresaka bat egiteko intentzioa du Udalak.

### *Apartamentu enkantea*

Udaletxeko lehendabiziko solainuan herriak dituen bi apartamentuetatik bak enkantean emateko deialdia egin du. Hasieran, alkilerra bi urtetarako emanen da, eta bost urte arte luza daiteke. Enkante hori ahotsez egin da, eta hasierako lizitazioa 90 eurokoa (15.000 pta) izan da. Larunbat eguerdi honetan egin da enkantea Udaletxean eta hurrengoan emanen dugu emaitzaren berri.

### *Mindegia, sekula-sekulorum*

Apirilaren 28an eman zuen erakustaldia ikusiaz, nabari da Mindegiak oraindik hoberenen artean segitzen duela. Bost minutu pasa kendu zizkion Arriari eta estutu balu, gehiago kenduko zizkion. Eta hori erakusteko, Urrezko Aizkoran ere irabazi egin zion Arria V.ari, maiatzaren 12an Orduñan egindako final laurdeneko saioan. Oraindik ere, Mindegia edozeini "susto" bat emateko prest dago. Eta hori guztia 53 urterekin. Orain dela 20 urte harrapatu balitu... Orain, Urrezko Aizkoraren finalerdia jokatuko du igande honetan Floren Nazabalen kontra.



BERTIZARANA

# Narbarteko taldeak Nafarroako Herri Kirol Jolasetan parte hartu du

## Hirugarren izan zen sokatiran eta proba konbinatuan ez zen finalean sartu

**ttipi-ttapa**

Narbarteko eskolako neska-mutikoek lehendabiziko aldiz parte hartu dute Nafarroako Herri Kirol Jolasetan. 15-16 urteko neska-mutikoek kadete mailako proba konbinatuan eta sokatira proban parte hartu dute. Proba konbinatuan ez zuten Arantzan maiatzaren 11n jokatu zen finalerako txartelik eskuratu, bosgarren izan baitziren lehendabiziko fasean. Baina sokatiran meritu handiko hirugarren postua eskuratu dute. Txantreako Eunate izan zen txapeldun 20 punturekin, Etxarri Aranazko Andra Mari azpitxapeldun 13 punturekin eta Narbarte hirugarren 12 punturekin. Laugarren postuan Lakuntzak akitu zuen, 5 punturekin. Narbarteko neska-mutikoek Etxarri Aranazkoekin izan dute borrokarik handiena. Izan ere, lehenbiziko jardunaldian Sakana aldekoak bi tiraldiak irabazi bazituzten ere, ondoko saio guzietan berdinduak gelditu ziren Narbarte eta Andra Mari, euren arteko tiraldi bana irabazita. Mitxel Aginaga kirolari narbartearra izan dute entrenatzaile herriko neska-mutikoek.




EDURNE ZUBIETA

**Narbarteko taldea ederki aritu da Nafarroako Herri Kirol Jolasetan.**

### *Trenabidea Bide Berde proiektua*

Bertizko Turismo Partzuergoak, martxoaren 13an egindako Administrazio Kontseiluan hartutako ebazpenean, Bidasoako Trenbidea Bide Berde bihurtzeko proiektuaren erredakzioa "PENTIA Ingenieros SA" enpresari esleitu zion. Proiektuan lanean hasia da dagoeneko enpresa hau eta uztailaren erdialdera egina izanen da.



PERTSONAIA

Joxe BIKONDOA

### *Aizkoran buruz beheiti marka berria egin du legasarrak*

Ez da markak egiteaz aspertzen Joxe Bikondoa, sortzez Legasakoa eta gaur egun Zuberoako Altzürükun bizi den aizkolaria. Lehendik ere hamar metrotik goiti ibilia da aizkoran, bai begi irekiekin baita begi estaliekin ere. Gero, motozerrarekin ere aritua da altueran. Hiru marka horiek Guiness liburuan ezarriak ditu eta orain bertze bat egin nahi du: aizkoran buruz beheiti egitearena. Medikuek postura horretan hiru minutu baino gehiago egotea ez dela ona erran diote, baina lehenbiziko proban zazpi minutu behar izan zituen enborra mozteko. Baina ordukoa ez zen ofiziala izan eta oraingoan marka ofiziala egin nahi du, Frantziako TF1 Telebistaren kamaren aitzinean. Bere adinerako sasoi ederrean dago, beraz, Joxe.



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
Amezti karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 45 03 06

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Petserrekoborda • Tfnoa: 948 450 882 • SUNBILLA



APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
• Melamina taulak
• Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
• Txapaz estalitako taulak
• Entzimerak
• Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
• Pintura eta bernizak
• Bainurako mobleak eta osagarriak
• KIT mobleak, esku-erremintak, etab...
Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

ITUREN

# Miguel Angel Sagaseta apezari omenaldia egin zioten Baigorrin

Igande honetan ospatuko da Trinitate Eguna

Iban ISASI

Apirilaren 27an, Iturengo Palaziokobordan orain dela 61 urte sortu zen Miguel Angel Sagasetari omenaldia egin zioten Baigorriko Nafarroaren Egunean. Izan ere, Nafarroako Luzaiden eta Iparraldean, Baztango mutildantzen antza handia duten «jauziak» izeneko dantzak gordetzen lagundu du. Orain dela 25 urte Luzaideko Dantzak izeneko liburua argitaratu zuen, egun berrargitaratu dena. Liburu honetan, dantza honen pausuak eta datu etnografikoak bildu zituen Sagasetak. Duela sei urtetik honat Urdiainen dabil apez lanetan, Etxarri Aranatzen bertze 14 urtez aritu ondotik.



Iban ISASI

**Joaldunek auzoz auzo egin zuten euskararen ofizialtasunaren aldeko sinadura biltzeko mahaira hurbiltzeko deia.**

### *Trinitate Eguna igandean*

Ohitura segituz igande honetan, maiatzak 26, Mendaurko kaxkoan dagoen Trinitate baselizara erromeria eginen da. Mezak betiko orduetan izanen dira, eta eguerdian bazkaria antolatu du Ibintzak Mendaurko urtegian, eguraldiak laguntzen badu. Eguraldi txarrarekin Herriko Etxeko ganbaran eginen da. Arratsalde-gauez dantzaldia izanen da plazan.

## Euskararen ofizialtasuna eskatzeko sinadura bilketa

Sinadura aunitz bildu zituen apirilaren 27an Ibintzak euskararen ofizialtasunaren alde antolatutako bestan. Goizean irrati saioa izan zen eta bertan Andres Iñigok Erramun Joakin Sunbil Telletxea Iturengo arotz famatuaren bizitzari buruzko zenbait datu eman zituen. 1755. urtean jaio zen Berdabion eta Montevideon (Uruguai) hil zen. Arratseko talo jatea baino lehen trikitilariekin kalejira egin zen, «Gure hizkuntza ofiziala» pankartaren gibeletik. Joaldunak ere, Ituren eta Lasagako karriketan ibili ziren, jendea plazara hurbildu eta beraien sinadura ematera joateko deituz.


DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA, S.L.
FUNERARIA
ZERBITZUAK
DONEZTEBE BEILATOKIA
Bortziriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan
Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara
✆ 948 637404
✆ 900 704704

SOBEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
✆ 948 637826

Alberto RETEGI
abokatua
Altzate 17
BERA
✆ 948 630 763

## GOIZUETA

# Irrati emanaldiak eta bertso-paper lehiaketak eskolan

Idoia Legarreta herritarra izango da udal arkitektu berria

Esteban AROTZENA

Azken urteetan bezala, aurtengoan ere Xorroxinek bere irrati apailuetako bat utzi dio herriko eskolari eta bertako ikasle eta irakasleek «Txoko-txiki» irrati txikiari astebetez hizpidea eman zioten. Saioen prestakuntzarako Leitzako Karrape Irratiko Arantxa eta Unai izan zituzten gidari. Biei luzatu nahi dizkiete eskolakoek eskerrik beroenak, baita irratian hitzegiten edota informazioa biltzen lagundu dieten Udaletxekoei, medikuari, Dionisio Txoperenari, Arantxa Ansari, Xapo aldizkariko egiletako bat den Eneritzi eta beste batzuei ere.

Eskolako kontuekin segituz esan, Nafarroako Gobernuak eta Bertsozale Elkarteak antolatutako XVI. Bertso-paper lehiaketan sarituak izan direla hiru ikasle goizuetar, Jon eta Oier Apezetxea anaiak eta Iñigo Agesta.

### *Idoia Legarreta udal arkitektu berria*

Idoia Legarreta Narbarte da azken plenoaz geroztik udal arkitektu berria, goizuetar honi eman baitzion korporazioak Jose Ignacio Arribasek 11 urtez bete duen lanaren ardura. Arau Subsidiarioak berritzen ari den taldeko kide da Idoia. Aldaketarik ez dagoen lekua Bake Epaitegia da. Postuak berritzeko deialdiak ez zuen erantzunik jaso eta beraz, lehengoek jarraituko beharko dute, hau da, Jexux Etxegia bake epaile eta Juanita San Miguel bere ordezko.





ARGAZKIA: ESTEBAN AROTZENA

**Tubeneko Bordako Antonio Apezetxeak eta Felixa Gartziak apirilaren 16an bete zituzten 50 urte elkarrekin ezkonduta. Beraien alaba zaharrena den Milagrosek eta Daniel Narbartek, berriz, hurrengo egunean 25. Ez da esan beharrik, noski, nolako ospakizunak izan ziren familian. Ez zen gutxiagorako ere!**

## ARESO

# Industrialdea kudeatzeko elkarte publikoa osatu da

Industrialdea 120.000 metrotan handitu egingo da

Juana Mari SAIZAR

Industrialdea gestionatzeko elkarte publikoa osatu da. Industrialdea handitu eginen da. 120.000 metro handiagoa eginen da eta erdia geldituko da enpresa berriak sortzeko. Maiatzaren 7an onartu zen anpliazioa Nafarroako Gobernuan. Handitzeko mendian desmontea eginen da. Ingurumen Departamenduak ahalik eta inpaktu txikiena sortzea nahi du eta hori landu omen da proiektu berrian.

### *Beleak hil*

Udalak Nafarroako Gobernuari baimena eskatu dio beleak hiltzeko. Kalteak sortzen ari dira abereetan. Begiak ere atera omen dizkiote pottoka bati.

### *Arratoientzako pozoia*

Arratoientzako pozoina du Udaletxeak. Nahi duenak bertatik pasatu behar da eta dohainik emango zaio.



ARGAZKIA: JUANA MARI

**Maiatzaren 5ean Santa Kruz baselizara erromeria egin zen. Herritik Gurutz Bidean joan ziren asko.**

### *Udaberriko Bira*

Udaberriko Biraren barnean, ekainaren 9an Helkos Kamara korala etorriko da elizara eguerdiko 11:30etan. Juxtu egun horretan Migel Aingeruaren bisita izango da eta, beraz, aldaketak izan daitezke.

LEITZA

# Kultur Astea igandeko eskulangintza erakusketarekin bukatuko da aurten

## Kanpo zorraren abolizioa eskatuz ia 400 argazki bildu dira herrian

**Mikel ILLARREGI**

Bada oraindik zer ikus eta zer goza, XXIV. Kultur Aste honetan.

Ostegunean, maiatzak 23: Maxurrenean, Leitzako idazleen irakurketak, 20:00etan. Besteak beste Patziku Perurena, Patxi Zabaleta, Iñaki Zabaleta, Migel Mari Elosegi, Arturo Elosegi, Pakita Zabaleta, Iñaki Perurena, Gotzone Sestorain, Mikel Olano eta Antton Erkizia izanen dira irakurketa saiotxoren bat eginez. Honekin batera, hauek argitaratutako liburuak ikusgai izanen dira.

Maiatzaren 24a, ostirala: «Kuba bizikletaz» diapositiba emanaldia, 20:00etan.

Maiatzaren 25a, larunbata: Umeentzat jokoak, 12etan eta «Sex-Une» antzerki obra (iruртzundarrek eta leitzarrek antzestua), 20:00etan.

Maiatzaren 26a, igandea: XXII. Eskulangintza erakusketa, 11:00etatik aurrera. Bertan, beira funditua eta grabatua, paper birziklatua, zilarra, txokolatea, alpaka, loreak... kanpotik etorritako 25 talde guztira. Eta herrikoak beste lau.

Maxurrenean, margolanak eta eskulan ezberdinak izanen dira ikusgai aste osoan.




foto ZABALETA

**Maiatzaren 10ean, udaleko zinegotziek, Jaione Astibia, Juan Oronoz, Fernando Garcia eta alkatea den Tomas Azpirozek parlamentoan agerraldia egin zuten. Udala eta herriaren izenean agertu ziren Hezkuntza eta Kultura arloko arduradunen aurrean Maxurrenearen zesioari buruz, herriaren gehiengoaren iritzia azalduz. Dakizuenez, duela hilabete batzuk, Goardia Zibilaren koartela jartzeko asmotan, Nafarroako Gobernuak Barne Ministerioari Maxurrenea eman zion. Kultur ekintzak ugariak badira ere, lokal aldetik eskas xamar dabil herria, udaleko kideek azaldu zutenez. Horregatik, eta etxe hori bere garaian kultur erabilerarako eman zelako, «Maxurrenea herriarentzat» eskatu zuten, UPN eta PSNren isiltasunaren aurrean. Beste taldeek udalaren eskaera baikortasunez ikusi zuten.**

### *Kanpo zorraren abolizioa*

Ia 400 argazki bildu ziren astebururan kanpo zorraren aurka jarritako mahaian. Duela bi urte hasi zen kanpaina hau kontsulta soziala antolatuz eta aurten Espainia EB presidentziaren jabe dela aprobetxatuz, «Ez aurpegia itzuli kanpo zorraren abolizioari. Beste Europa justu bat posible izan dadin» lelopean kanpainaren jarraipenari ekin zaio. Ekainean Iruñean antolatuko den kanpo zorraren abolizioaren aldeko egunean Nafarroan ateratako argazki guztiak erakutsiko dira. Honekin eta beste erkidegokoekin pankarta erraldoia sortuko da eta Sevillan aurkeztuko da EBko estatuetako ordezkarien batzarrean. ONG ezberdin askok antolatzen duten kanpaina hau herrian Ekintza Katolikoa eliz taldeak burutzen du.

FLASH

### *Igerilekuak*

Azken udalbatzan igerilekuen ustiapenerako kontratuaren deialdia egitea erabaki zen. Kontratuaren iraupena, ekainaren 15etik irailaren 15a arte izanen da. Hasierako prezioa librea da eta BEZ-a proposamenean sartu behar dute. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 23an bukatuko da.

### *Egur loteak*

Bando baten bitartez, sutarako egurra nahi duten guztiak, bere izena udal idazkaritzan eman beharko duela jakinarazi dute udaletik. Joan den urtean eman baina lotea atera ez duena ez da zozketan sartuko. Bestaldetik, eta ohi denez, egurra jasotzearen truke, auzolanean egun bat egin beharko dute. Eskaera egiteko epea: maiatzaren 31ko 13:00ak baino lehen. Gaitz egurra eskatzen dutenak ere, epe berdina izanen dute.

### *Aurten 40 urte*

Aurten berrogei urte betetzen badituzu, ez desanimatu, 1962an jaiotako kintoen afaria antolatu baitute ekainaren 1erako Musunzar ostatuan. Izena eman nahi duenak, maiatzaren 29a arte du epea izena emateko aipatutako tabernan. Eta ongi pasa!



BAZTAN

# Almandozko eliza zaharra erori egin da azkenean



ARTXIBOKOA
**1956. urtean ireki zen Almandozko eliza berria, zaharra egoera kaxkarrean zegoela ikusita. Orain, erori egin da eliza zaharra.**

Xabier Altzugarai pilotari almandoztarra Zizurren txapeldun

**Ramon APEZETXEA**

Duela aste batzuk erori zen Almandozko eliza zaharra. 1956. urtean inauguratu zen eliza berria. Ordurako nabari zen eliza zaharra hondatzen ari zela eta horixe izan zen berria eraikitzearen arrazoia. Anizko elizarekin batera dorre koadratua eta teilatua izateagatik nabarmentzen zen.

### *Hautsez estaliak*

1967. urtean Almandoz albiste izan zen, herria bere osotasunean moldatzeko egindako lanagatik Turismo Sari Nazionala irabazi zuelako. Gaur egun ere albiste izan zitekeen, Baztan osoan ez baita etxe eta karriketan hainbertze hauts pilatzen duen bertze herririk. Obretan ari diren kamioiek harrotzen dute hautsa eta gainera, arriskua sortzen dute, eskolako ataritik pasatzen baitira. Bizilagunek denendako soluzio egokia eskatu dute behin eta berriz, baina Udalak ez du ja egin, osasuna eta nekazarien landak kaltetzen dituen arazo hau moldatzeko. Astean behin garbitzea eskatzea sobera al da?

### *Altzugarai txapeldun*

Xabier Altzugarai Pierola herriko pilotaria txapeldun izan zen Zizurko lau terdiko txapelketan, Leitzako Bengoetxeari finala irabazi ondotik.

Dirua aurrezten espezialistak



Dituzun aurrezkietan pentsatzen duzu?

Atoz

Euro bat, edo bi, edo bost. Mila euro, bost edo hamar mila... edo zuk nahi duzuna. Kontu korronte batean, epe bateko diru-ezarpenean, bermaturiko gordailu batean edo zure neurrira prestatutako Diru-fondoen saski baten bitartez. Edozein dela aurrezteko duzun ahalmena, Nafarroako Rural Kutxan zure diruaz arduratuko gara geurea balitz bezala. Aurrezten espezialistak garelako.

www.ruralvia.com

*Garrantzitsua zu zara*

NAFARROAKO RURAL KUTXA

BAZTAN

# Udaletxean EHNA tramitatzearen aurkako errekurtsoa paratu dute

## Estatuko abokatuak ezarri du eta Udala epaiketara joanen da

Rakel GOÑI

Euskal Herriko Nortasun Agiria (EHNA) Udaletxean eskatzeko eta egiteko Balleko Udalak urtarrilaren 18ko batzarrean hartutako erabakiaren kontrako errekurtsoa ezarri du Estatuko abokatuak. EAren aldeko sei botuekin eta UPN eta Batasunako sei abstentzioekin hartu zuen Udalak erabakia bere garaian. Beraien naziotasuna adierazten duen agiri bat izateko eskubidea onartzen zitzaien euskal herritarrei, baina Udalbiltzari erabaki bateratuak hartzea eskatzen zitzaion, *«aldebakarreko ekimenek ez dutelakoz eraikuntza nazionalerako elkarlana laguntzen»*. Batasunak aurkeztutako mozioan Udalean karneta eskatzeko eta egiteko aukera ematea eskatzen zen, baina hori ez zen onartu. Halere, Estatuko abokatuak errekurtsoa paratu du eta Udalak azken batzarrean epaiketara azaltzea erabaki zuen.

### Elbetearren bazkaria

Ekainaren 1ean elbetearren bazkaria eginen da herriko ostatuan. Garai batean bilkura egun hau egiteko ohitura bazen, eta hori berreskuratu nahirik gonbidapena luzatzen zaie elbetear guziei. Izena eman dezakete Ostatuan bertan edo telefonotik 948 581 383ra deituz.



**Agustin Blas oronoztarrak enduroko denboraldia garaipenekin hasi du, lehenego froga puntuagarrian bigarrena izan zen eta hurrengo bietan lehenengoa izan zen, Nafarroako txapelketaren burua hartuz.**

### Errepide moldaketak

Errepideen moldaketa segitzen du Baztanen. Arraioz eta Irurita arteko zatia ia akitu dutenean, Arizkungoa hasi dute. Horretarako Elbetetik Arizkunerako bidean hainbat zuhaitz moztu dituzte gidatzerakoan ikusteko oztoporik egon ez dadin.

### Baztango IX. Mendi Ibilaldia maiatzaren 26an eginen da

Baztango Mendigoizaleek bederatzigarren urtez antolatutako Mendi Ibilaldia igande honetan, maiatzak 26, eginen da. Lekarozen hasi eta Lekarozen akituko da, 37 kilometro pasatuko ibilbidea osatu ondotik. Bagordi (585 m.), Pausutxar (820 m.), Etxebertzea (370 m.), Etxalar (115 m.), Azkua (800 m.) Pausue (800 m.), Plaza Zelai (540 m.) eta Arakan (650 m.) igaroko dituzte Lekarozera itzuli aitzin. Partehartzaileek 5 e ordaindu behar dituzte. Izen ematea 948 581279 (Elixabet).



PERTSONAIA

**Beatriz SANTOS**

### *Marrazki eta idazlan lehiaketan saritu dute*

Elizondoko San Francisco Javier Ikastetxe Publikoko Beatriz Santos Sarasola, 6. mailako ikasleak «Iñigo Arista» erakundeak antolatutako lehiaketan, bai marrazkian baita idazlanean ere, saria lortu du. Hogeita batgarren edizio honetan 160 ikastetxe eta 4.398 ikaslek parte hartu dute, haien artean 40 sarituak izan direlarik. Marrazki eta idazlaneko sari bikoitza sei ikaslek bertzerik ez dute lortu Nafarroa osoan, beraz, zorionak Beatriz!

ARROPA DENDA
FANTXIKE
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia ✆ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
✆ 948 599 131 - URDAZUBI

GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
GESTIONES FUNEBRES DEL NORTE, S.L.
TANATORIO BAZTANDARRA
Santiago 52 • ELIZONDO
Baztan, Bertizarana, Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan eta etxean prezio guzietan
✆ 948 581959
✆ 900 704704


ANTXITONEA
Trinketea
Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea
Menu Bereziak
Beaulio Iriarte
ELIZONDO
✆ 948 581807 • 948 581853


LARRALDEA
SAGARDOTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • LEKAROZ
✆ 948 452121

## BAZTAN

# Almandozko Bestaberri bestak maiatzaren 29tik ekainaren 2ra

### Azken egunean Trikimako antzerki taldeak saioa eskainiko du arratsaldeko 5etan



ARGAZKIAK: RAMON APEZETXEAK UTZIA

**Goitiko argazkian, 1974. urteko bestetan soinulariak. Gainera, bortzak herrikoak bertakoak ziren. Beheitian, aizkora apostua urte batzuk lehenago, 1968. urteko bestetan.**

**Asteazkena 29**
**12:00etan** txupinazoa besteihasiera emateko. **21:00etan** Baztanzopak futbolinean.

**Ortzeguna 30**
**8:00etan** Aurora. **12:00etan** Meza Nagusia eta ondoren prozesioa. **12:45etan** hamaiketakoa pilotalekuan. **17:00etan** pilota partiduak. **18:00etan** txokolatada. **22:00etan** kalderete. **24:00etan** dantzaldia MIKELekin.

**Ortzileria 31 Haurren Eguna**
**11:00etan** haurrendako tailerrak. **16:30etan** haurrendako jokoak: puzgarriak, zezen mekanikoa... **20:30etan** dantzaldia GAUBELArekin. **22:00etan** afaria Futbolinean. **00:30etan** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

**Larunbata 1**
**8:00etan** gosaria gautxorientzat. **11:00etan** mus txapelketa. **14:00etan** zikiro jatea. **17:00etan** dantzaldia MIKELekin. **20:30etan** dantzaldia GAUBELArekin. **22:00etan** afaria Futbolinean. **1:00etan** dantzaldia GAUBELArekin.

**Igandea 2**
**8:00etan** gosaria. **12:00etan** Meza Nagusia. **17:00etan** antzerkia TRIKIMAKO taldearekin. **19:00etan** dantzaldia MIKELekin. **24:00etan** Gaizua Ni.



gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak



ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

SARA

# Ate Idekiak ikastolan erearoaren 8an

## Joko Berri xapelgoa burutu zen

Aña Mari eta Fred

Erearoaren 8an, larunbatarekin, Ipar Euskal Herriko ikastola guziek ateak zabalduko dituzte herritarrei. Beraz, saratarrek joan den urtean Olhain ikastolak Mendi Bista auzoan estreinatu zuen lokal berria bisitatzen ahalko dute. Goizeko 10etatik eguerdi arte ongietorria eginen zaie nahi duenari; andereñoa han izanen da buraso berriek xehetasunak nahi baldin badituzte. Eguerditatik goiti aperitifa eskainia izanen da.

### Joko Berri

Apirilaren 27an, Sarako Izarra pilota elkarteak urtero antolatzen duen Joko Berri xapelgoa burutu zen, hiru hilabete iraun ondoren. Aurten ere, finalen ondotik elkarteak afaria prestatu zuen eta 100 bat presuna bildu ziren polikiroldegian. Txapelketa bat finitu eta bertze bat hasi beharra dute herriko pilotariek. Oraingoa, plaza laxoko xapelgoa izanen da eta 8 bikote aritu beharra dira. Huna Joko Berri xapelgoaren emaitzak:

• Lehen mailan: Senpereko Lacroix eta sarako Dibart, 40; Senpereko Mendi anaiek, 27.

• Bigarren mailan: Senpereko Lasaga eta Behastegi, 40; Sarako Pedro Oronoz eta Uztaritzeko Mikeltorena, 35.

• Hirugarren mailan lau saratar ziren finalean. Saint Martin eta Gratien Mariluz, 40; Berrekoetxea eta Mattin Mariluz, 36.

• Laugarren mailan: Sarako Joset Endara eta Amotzeko Etxeberri, 40; Sarako Daniel Endara eta Ahetzeko Ugarte, 39.

### Bi gaupasak

Udaberrian herrian egiten diren bi gaupasak jadanik iragan dira. Maiatzaren lehenaren bezperako gomitatu nagusia La Polla Records Aguraingo talde mitikoa izan zen. Herri Urrats bezperako besta ere poliki iragan da. Bidasoaz bi aldetako jende frango hurbildu zen Sararat, biharamonean Herri Urratserat joan aitzin.

### Larreak

Herriko Etxeak jakinarazten du Sarako larreak baliatzen dituzten ardi eta pottoka hazleen 2001eko dirulaguntzatik %5a atxikia izanen dela larre horietatik gateko baliatzen diren bideen egokitzeko. Gainerako %95ak normaltasun osoz ukanen dituzte, haatik.





Argazkiak: Jean Pierre LEMOINE

**Laugarren mailan, Etxeberri eta Joset Endara bikoteak, Daniel Endara eta Ugarteri puntu batez irabazi zioten. Hirugarren mailan, lau saratarrek finala jokatu zuten: Daniel Mariluz eta Pantxo Berekoetxeak, 36; Gratien Mariluz eta Iñaki Sain Martin, 40.**

### Eskubaloia

Urtxintxak esku baloiko elkarteak auzo arteko lehiaketa antolatu du erearoaren 1ean, 13:30etatik goiti. Ekipa bakoitzean sei jokalari behar dira eta horietatik bederen bi neska. Herriko Etxeko edantegian izenak ematen ahal dira eta presunako 2 € ordaindu behar da. Txapelketa ondotik, Urtxintxak-ekoek aperitifa eta afaria antolatu dute (helduek 17 €, haurrek 8 €).

### Hauteskundeak

Frantziako lehendakariaren hautatzeko hauteskundeak iragan berri dira. Jacques Chirac eskuindarrak orain arteko kargua atxikiko du oraino bortz urtez bederen. Saran ere errexki nagusitu da bigarren itzulian, 1.219 bozetatik 1.077 bildu baiditu. Jean Marie Le Pen eskuin muturreko hautagaiak 142 lortu dituelarik. Azpimarratzekoa da azken honek lehen itzulian eskuratu boz kopuruaren doblea ukan duela bigarrenean (72tik 142rat). Lehen itzulian ere Chirac izan zen bozkatuena, Jean Sain Joise (PNT) bigarren eta Lionel Jospin (PS) hirugarren.

### Elgarretaratzea

Euskal preso politikoen aldeko ondoko elgarretaratzea maiatzaren 31n eginen da. Hitzordua arratseko 7etan finkatua da plazan.

BOAN TAILERRA
CITROËN Banatzailea
AUTO BERRIEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA
☎ 948 63 06 23 • BERA

ARANTZA ZURGINDEGIA
Jose Miguel Errandonea
Klase guztietako zurgin lanak
Dolla auzoa ☎ 948-634068 • ARANTZA

GANIX Tailerrak
Iturlandeta, 9 • ☎ 948 630669 • BERA
IBILGAILUEN MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

BURKAITZEA
ostatu erretegia
Zugarramurdiko bidea, 3 km.
☎ 948 599280 • URDAZUBI

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

AZKAIN

# Aurten ere neskek departamenduko titulua irabazi dute saskibaloian!

## Atletismoan ere emaitza ederrak eskuratu dituzte herriko kirolariek





**Goitian, saskibaloiko neskak, departamenduko titulua irabazi ondotik. Beheitian, herriko jokalari ohiek bosgarren tokia lortu zuten, herriko bigarren torneoan.**

**Ihintza, Angela eta Eneko**

Bigarren urtekotz segidan, neskek departamenduko xapelketa irabazi dute maiatzaren 12an. Eta ondoko urtean berriz ere, goragoko maila batean ariko dira. 50 bat azkaindar joan ziren finalaren ikusterat, auzapeza barne. Matxa gaizki hasia zuten Azkaindarrek 5 puntuko beranta hartu baitzuten hastapenetik eta lehen atsedenaldian 14-12 galtzen zuten. Bigarren zatian aldiz konfiantsa hartu eta, aintzinerat pasatu ziren. 3. eta 4. zatietan, publikoaren animoeri esker ez zituzten gehiago utzi Biarnesak jokoa menperatzen. Sasoin bikaina eraman dute aurten matxa bat baizik ez baitute galdu.

### Sagarmatha espedizioa

Orai 2 hilabete Frederik Lafitte Azkaindarra Himalaya mendikatean dela Everest gainditzeko asmoarekin, bertze bi Euskaldunekin. Interneten egin duten webguneari esker beren abenturak segitzen ahal dira egunez egun.

Orai arte hurbilketa luzea iragan zuten eta lagun batzu beraiekin ziren oraino. Maiatzaren 14an abiatu behar zuten kaskorat, meteorologoek aroa aski egokia aurrikusia baitzuten hortarako. Azken berriak hauek dira: astearte goizean (14an) partitu dira Frederic Pipas eta Jean-Pierre Lapeyrade. Bertze guziak hortan gelditu dira. Asteazkenean 7600 m-tan gelditu behar zuten. Ortzegunean 8 300 m-tan pasatu behar zuten gaua. Eta ortziralean, gauerditan jeiki eta gero, azken igoera egiteko asmoa zuten, oxigeno botoilak erabiliz.

### Departamenduko xapelketa

Atletismoko emaitzak biziki onak izan dira oraikoan ere azkaindarrentzat. Departamenduko xapelketak jokatu ziren maiatzaren 8an Pauen. Eta parte hartzaile bakotxak podiuma bat bederen lortu du egun hortan. 6 izan dira xapeldun, 8 bigarren tokian eta 9 hirugarren tokian.

Entrenatzailea izigarri kontent agertu da berriz ere, bakotxak lan seriosa eraman duelako urte guzian entrenamenduetan. Akitaniako xapelketak hasiko dira ekainan eta eta pentsatzen du gazte batzuek emaitza onak ateratzeko kapazitateak dituztela.

### Azkaingo torneoa

Maiatzaren 8an saskibaloieko elkarteak bere bigarren torneoa antolatu zuen. Inguruetak 10 taldek parte hartu zuten eta okasionearentzat Azkaingo jokolari ohiek ere berena osatu zuten. Arratsean 120 lagun bildu ziren afaltzeko. Herriko jokolari ohiek 5. tokia lortu zuten.

### Cherguy Azkaindik kanpo

Hilabete hastapenean Cherguy enpresako nagusiak jakinarazi dio Sauvé jaunari bertze batimendu batzuen xekatzen hasiko zela Azkaingoa sobera ttikia baitzen. Ez dakigu aldiz norat joateko asmoa duten eta ez dute jakiterat eman noiz eginen zen aldaketa.

### Elkarteen besta

Azkaingo elkarteen arteko besta bat antolatu da ekainaren 23an, igandearekin. Aldaketa batzu izanen badira ere, gan den urteko ibilmolde nagusia atxikia izanen da. Eguna mezarekin hasiko da, bazkaria Ur-Ertsin eginen da eta arratsaldea plazan bukatuko da pilota partida eta poteo batekin.

### Presoen aldeko elkarretaratzeak

Bertze herri ainitzetan bezala, presoen hurbilketaren aldeko elkarretaratzea eginen da maiatzeran 24an ortziralez herriko kioskaren aintzinean, arratseko 7etan.









## SENPERE



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR
**Marie-Jeanne Mercapide Euskal konfederazioko lehendakaria, Christine Bessonart auzapeza eta Jean-Michel Galant Azkarateko auzapeza eta Baigorriko kontseilari nagusia.**





ARGAZKIAK: STUDIO DE LA NIVELLE
**Goitian, biharko pilota xapeldunak saristatuak aurten ere. Beheitian, berrogoi urte bete dituzten senpertarrak. Zorionak.**

# Milaka euskaltzale bildu ziren aintziran ikastolen alde

20 tiro egin zituen laboraria ospitalerat ereman zuten

**Franck DOLOSOR**

70.000 lagun bildu ziren aurtengo Herri-Urrats eguzkitsuan. Den-dena untsa iragan zen aldi batez gehiago eta biharamunean berean betiko itxura garbia zuen aintzirak. Aurtengo irabaziak Garazi eta Hazparneko ikastola berriak eraikitzeko baliatuko ditu Seaskak.

### *Euskal Konfederazioa*

Euskal konfederazioak antolatu duen azken kanpainan parte hartzen du herriko-etxeak euskararen presentzia haunditzeko xedearekin.

Euskara ez bada ofiziala ere, frantses legeak ez du erraten ezin direla agiri publikoak bi mintzairetan idatzi. Ezkontza ala sortze agiriak konparazione euskaraz eta frantsesez betetzen ahalko dira hemendik goiti. Maitzaren 15ean egin zen aurkezpenean, Christine Bessonart andere auzapezak azpi marratu zuen Herriko Etxearen borondatea euskara hedatzeko bere ustez "dretxo naturala" baita euskaldunek euskarazko zerbitzu publikoak izatea. Gisa honetan oroitarazi zuen heldu den udan ezteiak euskaraz ospatuko dituela. Dei bat egin zuen bertze herrietan gauza bera egin dadin Baionako su-prefeturak ere paper elebidunak onartzen baititu.

### *Espainola ikastera*

Espainola untsa ikasteko ez da Espainiarat gatea bezalakorik eta hortako egonaldiak prestatu dira heldu den uda huntako Gaztela-Leonen Burgos aldean. Interesatuek die dezakete 0559541232rat 18:00etarik goiti.

### *Laboraria tiroka*

Ez da oraino argitu zendako maiatzaren 12an 69 urteko laborari batek 20 tiro egin zituen auzoko batzuen etxearen kontra. Kalteak eragin zuten tiroek baina ez zen kolpaturik izan. Arrastatu ondoan, jendarmeek ospitalerat ereman zuten laboraria.

RESTAURANT
MIGUEL
Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran
MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
✆ 948 631209

FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIO ZENTROA
Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
Lan istripuak
Trafiko istripuak
Kirol lesioak
Gihar, artikulazio... minak
Bizkartze ariketak
Bertze tratamenduak
Masajeak.
Etxez etxeko laguntza.
Iztea, 20 BERA
Tlfnoa 948 630187
Mugikorra 607 853208



# EZKONTZAK

**Jean Marc Elissalde** eta **Fréderique Nicole Monique Leveau**, Azkaingoak, apirilaren 20an.
**Juan Carlos Ayala Fernandez** eta **Maribel Sanchez Lopez**, Lesaka eta La Habanakoa (Kuba), apirilaren 6an.
**Felix Ramirez Hoyos** eta **Lurdes Perurena Aloroa**, Iturenen, maiatzaren 4an.
**Jabier Habans Sanzberro** eta **Maria Jesus Agerrea Altzualde**, Elizondo eta Arizkungoa, apirilaren 30ean.
**Ignacio Gaiarre Perez** eta **Maria del Loreto Gonzalez Tamayo**, Iruñekoak Arizkunen, maiatzaren 4an.
**Edwin Patricio Viracucha Sotomayor** eta **Lidia Paulina Alquinga Vega**, Elizondokoak, maiatzaren 4an.
**Jesus Etxenike Urrotz** eta **Maria Begoña Biguria Otermin**, Oronoz-Mugairi eta Elizondokoa, maiatzaren 11n.
**Roger Thomas** eta **Céline Banquet**, Sarakoak, maiatzaren 11n.
**Peio Saint Martin** eta **Joëlle Mariluz**, Sarakoak, maiatzaren 4an.
**Sophie Mundutegi** eta **Alain Zuttion**, Sarakoak, apirilaren 27an.
**Andoni Etxenike Elizegi** eta **Marilo Guerra Sein**, Goizueta eta Igantzikoa, maiatzaren 4an.



# JAIOTZAK

**Elixabet Barrenetxe**, Azkaingoa, martxoaren 15ean.
**Kévin Dylan Walter Garnier**, Azkaingoa, otsailaren 26an.
**Ttotte Iturria**, Azkaingoa, apirilaren 19an.
**Nicolas Larzabal**, Azkaingoa, apirilaren 16an.
**Xanti Sansinena**, Azkaingoa, otsailaren 26an.
**Jokin Etxart Verdú**, Urdazubikoa, martxoaren 23an.
**Patricia Sanz Feito**, Lesakakoa, apirilaren 4ean.
**Albaro Marin Sebastian**, Berakoa, apirilaren 29an.
**Jone Oteiza Aitzuguren**, Elizondokoa, apirilaren 26an.
**Jon Fernandez Rodriguez**, Elbetekoa, maiatzaren 3an.
**Mikel Garcia Mendiberri**, Elizondokoa, maiatzaren 5ean.
**Eñaut Beristain Iriarte**, Arizkungoa, maiatzaren 3an.
**Leire Retegi Fernandez**, Leitzakoa, apirilaren 24ean.
**Oier Alduntzin Azkarate**, Leitzakoa, maiatzaren 4ean.

# HERIOTZAK

**Thérèse Etxezaharreta**, Azkaingoa, martxoaren 11n, 97 urte.
**Odette Barets Mikelajauregi**, Azkaingoa, martxoaren 8an, 67 urte.
**Marceline Iparragirre Jauregi**, Azkaingoa, martxoaren 27an, 80 urte.
**Pilar Larretxea Burgete**, Lesakakoa, apirilaren 23an, 79 urte.
**Maria Belarra Baztarrika**, Eratsungoa, maiatzaren, 73 urte.
**Teresa Bengoetxea Etxegia**, Eratsungoa, maiatzaren 4an, 84 urte.
**Antonia Otxandorena Elizalde**, Berakoa, maiatzaren 6an.
**Iñaki Lizarraga Iraola**, Leitzakoa, maiatzaren 10ean.
**Vicente Urrutia Alunda**, Leitzakoa Elizondon, maiatzaren 11n, 88 urte.
**Isabel Revuelto Mirallas**, Elizondokoa, apirilaren 27an, 64 urte.
**Bernardina Lorenza Silveria Bidegain Jaurena**, Arizkungoa, maiatzaren 3an, 101 urte.
**Julian Maia Dendarieta**, Elizondokoa, maiatzaren 8an, 85 urte.
**Mª Concepcion Olazar Iriarte**, Berroetakoa, maiatzaren 9an, 92 urte.
**Mª Teresa Goñi Luziaga**, Lekarozkoa, maiatzaren 11n, 72 urte.
**Maria Elena Dufurrena Etxenike**, Erratzukoa, maiatzaren 12an, 60 urte.
**Gregorio Barandarain Mugerza**, Aresokoa, maiatzaren 12an, 84 urte.
**Asuncion Agirre**, Sarakoa, apirilaren 19an, 93 urte.
**Jean Ariztia**, Sarakoa, maiatzaren 4an, 86 urte.
**Feliciano Etxeberria Ameztoi**, Igantzikoa, maiatzaren 16an, 80 urte.

**Eskela eta eskertzak ttipi-ttapan 948 631188**

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 63,10 € ordaindu behar da **Rural Kutxako** 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.



**Luis Mari MAIA ARIZTEGI**

**1. URTEURRENA**

*Argi bat itzali da hemen lurrean*
*berri bat biztu da han zeru ederrean*
*Gure oroimenean izanen zara betiko*
*Ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik.*

ALTXATA ELKARTEA
Etxalarren, 2002ko ekainaren 10ean.



**Luis Mari MAIA ARIZTEGI**

**1. URTEURRENA**

*Beti irrifarrea zenuen lagunmin*
*gauza denen gainetik aitzinerat ekin*
*bizitzari helduaz gogo guziekin*
*indar hau utzi duzu betiko gurekin*
*maite izan zaitugun familiarekin.*

ZURE FAMILIA ETA SENIDEAK
Etxalarren, 2002ko ekainaren 10ean.

ARETO-FUTBOLA

# Elizondoko Txokoto Ostatua irabazle Baztan-Bidasoako txapelketan

## 4-2 irabazi zion maiatzaren 5eko finalean Doneztebeko Titi Ostatuari

Elizondoko Txokoto Ostatua nagusitu da Erreka elkarteak hamargarren urtez antolatutako Baztan-Bidasoako areto futbol txapelketan. Maiatzaren 5ean Doneztebeko kiroldegian jokatutako final ziraragarrian 4 eta 2 irabazi zion Doneztebeko Titi Ostatuari. Elizondokoak aitzinetik paratu ziren markagailuan, baina doneztebarrek partidua berdindu ez ezik aitzintzea ere lortu zuten. Baztandarrak ez ziren kikildu, ordea, eta bina berdintzea lortu zuten. Arauzko denbora akitzeko minutu eskasa falta zenean hiru eta bikoa egin zuten Goizaldekoek. Titik, nahitaez, arriskatu egin behar izan zuen eta atezainik gabe aritu zen azken minutu horretan, baina Goizaldekoek partida eta txapelketa erabaki zuten kontraeraso azkar batean gauzatutako laugarren golarekin. Honela, joan den urtean bezalaxe Baztan aldera joan da txapelketa, eta iaz bezala Titi Ostatua izan da azpitxapeldun. Txapelketa honetako azken bortz finaletako protagonista izan dira doneztebarrak, baina hiru lehenbizikoak irabazi egin zituzten bitartean, azkeneko biak galdu egin dituzte.



Eduardo ZUBIETA

**Txokoto Ostatuak lehen aldiz irabazi du Baztan-Bidasoako areto futbol txapelketa. Gainera, Agustin Mitxelena taldekideari eman zioten finaleko jokalari onenaren saria.**

Final nagusiaren aitzinetik, hirugarren posturako lehia jokatu zuten Lesakako Haizegoa Ostatuak eta Baztango Basaburuak. Finala berdindua eta ikusgarria izan bazen, zer erranik ez aitzineko partidua! Gol besta ederra ikusi zen eta arauzko denbora bosnako berdinketarekin agortu zen. Luzapenean, nekea gehiago somatu zuten Basaburuakoek. Honela, bertze sei gol gauzatu zituzten Haizegoakoek eta bi bertzerik ez baztandarrek, beraz, azken emaitza hameka eta zazpi gelditu zen eta hirugarren postua Haizegoarentzat.

### Bertze sariak

Taldeka emandako sariekin batera, bakarka ematen direnak ere banatu ziren. Honela, Basaburuako Aitor Azkarate izan zen pichichi edo goleatzaile onena. Atezain onenaren saria Titi Ostatuko Anzizarrentzat izan zen, baita erregulartasunari emandako saria ere. Finaleko jokalaririk onena, berriz, Txokotoko Agustin Mitxelena izan zen. Txapelketako epailerik onena Iñaki Orobengoa izan da. Kiroltasunaren saria Titi Ostatuak eraman zuen eta errebelazio taldearena Ezkurrak. Saskiaren zozketa ere egin zen partiduaren ondotik eta Arraiozko Silvia Laurnagaraieri egokitu zitzaion.

FLASH

### Felix Errandonea Txirrindularitza Memoriala

Beola Motor taldeko Daniel Sesma nagusitu zen maiatzaren 4ean Berako Gure Txokoa elkarteak antolatutako Felix Errandonea txirrindularitza Memorialaren 27. edizioan. 66 kilometroak egiteko ordubete, 37 minutu eta 39 segundu behar izan zituen. Uno taldeko Mikel Nieve leitzarra izan zen bigarren 39 segundura.

### Joseba Larralde garaile Larragan bigarren Lizarran

Intersport Irabia taldeko txirrindulari beratarra garaile izan zen Larragako VI. Sarian, kadeteei zuzendutako 45 kilometroko proban. Maiatzaren 5ean, berriz, bigarren izan zen Lizarran egin zen La Moderna 11. Sarian. Lasterketa honetan 40 kilometro egin behar ziren. Caja Rural taldeko Francisco Javier Aramendia irabazlearengatik 36 segundura sartu zen Berakoa.

PILOTA

## Belateko elite txapelketaren finalak larunbatean Elizondon

Larunbat honetan, maiatzak 25, jokatuko dira Belate elkarteko elite txapelketaren finalak. Eskuz binaka senior eta gazte mailan eta palan larruzko pilotarekin aritu dira Euskal Herriko pilotari onenak. Aste hondar honetan Arbizun eta Zizuren jokatu dira finalerdiak. Palaz ez, baina eskuz eskualdeko hainbat ordezkari ari dira txapelketan. Nagusietan, Iban Zubieta (Bera) eta Toni Huarte (Baztan) bikotea osatu dute. Iñaki Eskudero (Eratsun), Gorka Irazoki (Bera) eta Iñaki Iparragirre (Leitza) ere ari dira bikote ezberdinekin. Gaztetan Xabi Altzugarai almandoztarrak eta Iñaki Etxegarai beratarrak eta Iñaki Larralde lesakarrak eta Xabi Arraztoa iruritarrak bikotea osatzen dute. Ibai Bengoetxea leitzarra, Unai Arraztoa elizondarra, Iban Loiarte goizuetarra eta Xabier Elizalde iturendarra ere ari dira.

PILOTA



EGURNE ZUBIETA

Bortzirietako eskuz banakako lehendabiziko pilota txapelketan zazpi eta hamalau urte bitarteko lautan hogeita hamar neska-mutikok hartu dute parte, sei kategoriatan banatuak. Haserako ligaxkan 247 partida jokatu ziren.

# 90 neska-mutikok parte hartu dute Bortzirietako I. eskuz banakako txapelketan

## Maiatzaren 4ean jokatu ziren kategoria ezberdinetako finalak Lesakako pilotalekuan

Maiatzaren 4an jokatu ziren Lesakako udal pilotalekuan Bortzirietako eskuz banakako lehen pilota txapelketaren finalak. 7 eta 14 urte bitarteko 90 neska-mutiko lehiatu da txapelketa honetan sei maila ezberdinetan otsailetik aitzinera. Ligaxka bakarrik kontutan hartuta 247 pilota partida jokatu dira guzira.

Aurrebenjaminetan, Joseba Martinez beratarrak 16 eta 7 irabazi zion Markel Jorajuria aranztarrari. Benjamin B mailan, Alexander Eizagirre beratarrak 16 eta 12 irabazi zion Arkaitz Retegi igantziarrari. Benjamin A mailan, Ander Olaizola lesakarrak 16 eta 6 irabazi zion Jon Jorajuria aranztarrari. Alebin B mailan, finalera ailegatu den neska bakarrak, Ane Sainz igantziarrak garaipena eta txapela lortu zuen, Mikel Morcillo beratarrari 18 eta 15 irabazi ondotik. Alebin A mailan, Lander Arriola lesakarra eta Imanol Goienetxe igantziarra aritzekoak ziren finalean, baina Igantzikoaren lesioa zela medio partida gibeleratu egin zen. Bere ordez, lagunarteko partidan, Beñat Txoperena igantziarrak jokatu zuen eta Lander Arriolak 18 eta 17 irabazi zuen. Infantil B mailan Iñaki Sein igantziarrak 18 eta 7 irabazi zion Aitor Telletxea etxalartarrari eta, azkenik Iñigo Blas beratarrak 18 eta 8 irabazi zion Eneko Ordoki aranztarrari infantil A mailako finalean.

**Bortziriak Pilota Elkartea**

Txapelketaren antolatzaileak Bortziriak Pilota Elkartea sortu nahian dabiltzan lagun berak izan dira. Orain elkartea legeztatze lanetan ari dira eta udarako martxan izatea espero dute, Bortzirietan pilota berpizteko helburu nagusiarekin.



### Oskar TXOPERENA *Bortziriak Pilota Elkartea*

## *"Ez dugu inoren lana zanpatu nahi eta herrietako taldeek segituko dute"*

**Nola gogoratu zaizue Bortzirietako pilota elkartea sortzea?**
Lau-bortz herrietako lagunak bildu eta erabaki dugu elkarrekin koordinatzea eta txapelketak prestatzea. Horretarako egokia ikusi dugu elkarte berri bat sortzea eta horretan ari gara.

**Konpetizioan maila handiagoko taldea ere izateko balioko du?**
Akaso denborarekin hori ere lortuko dugu, baina ez da gure lehen helburua. Bortz herrietako haurrak elkartzea eta Bortzirietako lotura lantzea da gure asmoa. Gero, konpetizioan ere onura ekarriko duela uste dugu.

**Dagoeneko elkarrekin entrenatzen hasiak zarete...**
Maitzaren 2an hasita, ortzegun arratsaldero biltzen gara Berako pilotalekuan. Lehen egunean 54 haur agertu ziren eta ustekabean harrapatu gaitu. Luis Mari Retegi ari da irakasle eta ahal duenean Inaxio Errandoneak ere agertuko dela erran digu.

# AGENDA egunez egun

**ZAKURRENDAKO TXERTOAK**

**LESAKA**

**Ekainaren 3 eta 4ean** suhiltzaileen parkean, 15:30etatik 18:00etara.

**ARANTZA**

**Ekainaren 5ean** baskulan, 15:30etatik 18:00etara.

**IGANTZI**

**Ekainaren 6n** Arkupean, 15:30etatik 18:00etara.

**BESTAK**

**ALMANDOZ**

**Maiatzaren 29tik ekainaren 2ra.**Begiratu xehetasunak 23. orrian.

**TXOTXONGILOAK**

**BERA**

**Ekainaren 2an**
HNikaraguako Guachiplin taldeak bi emanaldi eskainiko ditu Kultur Etxean, 17:00etan haurrentzat eta 20:00etan helduentzat.

**FERIAK**

**ETXALAR**

**Ekainaren 2an** X. Gasna eta Artisau Feria. Xehetasunak 12. orrian.

**LEITZA**

**Maiatzaren 26an** XXII. Eskulangintza Erakusketa 11:00etatik aurrera.

**MENDI IBILALDIAK**

**BAZTAN**

**Maiatzaren 26an** Baztango IX. Mendi Ibilaldia.

**KONTZERTUAK**

**IRUN**

**Maiatzaren 25ean** VII. Rock jaialdia, 22:00etan Landetxa auzoan. Jauko Barik (Trintxerpe), Mermaid (Iruña), Kuraia (Oarso-Bidasoa) eta Inadaptats (Katalunia). Elatzeta elkarteak antolatua.

## TELEBISTAKO TXOKOA




ARTZAINEN HARAT-HONATAK

# Lehen hemendik joaten ziren Ameriketara, orain alderantziz

Aspaldiko errana da historiak mila buelta ematen dituela, eta kasu honetan ere, antzeko zerbait erraiten ahal da oker handirik egin gabe.
Izan ere, kasik familia gehienetan izanen da bat baino gehiago Ameriketan izandakoa, edo beharbada oraindik han bizi dena. Orduan hemen aukera haundirik ez, eta bertze nonbait bilatu behar izaten zuten bizia aitzinera ateratzeko behar zen ogibidea.
Eta behin erabakia hartua zutenean, bertze lan kontuetan aritzeko prestakuntza handirik ez eta gehientsuenak artzain ibiliak izaten dira, aski estimatuak kontatzen dutenez. Gaur egun gauzak nabarmen aldatu dira. Orain gure herrietan aski normala da bertze erresumetatik etorriak diren jendeak ikustea. Eta horien artean dugu Roger Bergman.
Roger ere *artzain* etorri omen da honat, halaxe dio berak aferari parekotasuna bilatuz. Ez ardiekin ibiltzen den artzaina, bista da, fededunen artzain baizik. Esperantza Sendoa, Bortzirietako Bautistaren Elizako *artzaina* da Roger. Emigrazio kontuak eta bertze hainbat bizipen kontatuko dizkigu aste honetako Herriz Herri saioan.

## DISKAK




*«Ufestuek»*

**Ufestuek**

*ENIXE RECORDS*

Erratzun, Baztanen edo gusto baduzue bailara lasaietan... asto zaharra zamari egina da, baina Ufestuek ez dira asto zahar zamaketari izateko sortu, ez eta beraien erditzearekin gozatu zutenek ere. Xabi, Iban, Joseba eta Etxamendi kitarra, baxu eta batakarekin burrunban, bazter inarrosten eta aunitzurtez! Ufestuek edo egin ezank herorrek, pasatua zela garai hori? hiretako kalte, beti gelditik egonen bahiaiz, mutu eta zozo aski jende hits. Erran eta egin, 2001eko udaberrian Erratzun bildu, eta urtea bete gabe maketa argiratua... lotsagabe? Eta zer! Ufestuek ez da piztiak baretzeko, inguru arrotz eta oldarkorrean orroka dabilen piztia baizik, pizti zauritua, lau akorde hatzaparrak bezalakoak, kate den ororen kolpatze eta xehatze eginahalean. Bizia benain kontradiktorioa.

## BASERRIA

Datu Iturria: **Nafarroako Gobernua**
(Maiatzaren 3tik 10rako prezioak)



**ZERRIKIA**

**Zerrikumea**
(19 kilo): 28,19 €

**Zerri gizena**
(95-100):1,07 €

**Zerramak:**
0,48 € kiloa, bizirik.



**BEHIKIA**

**Aretze gizenak: Idixkoak: €/kg. Kanal**
**Extra** 3,28
**1.koa** 3,16
**2.koa** 3,04
**Urruxak: Pta/kg. Kanal**
**Extra** 3,34
**1.koa** 3,22
**2.koa** 3,10

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Mestizoak:** urruxak 246,41 € eta idixkoak 234,39 €

**Nabarrak:** urruxak 216,36 € eta idixkoak 192,32 €.

**Zaldikoak: €/k**
Sortuberriak: 3,01/3,07
Zaldi-behorrak: 1,92/1,98

**Bildotsak: €/k**
6-8 kilokoak: 5,10/5,30
8-10 kilokoak: 4,35/4,75

## JAKIN BEHARREKOAK



Zartagia baino zabalagoa den tapaki bat hartu eta gainean paratu behar da sua itzaltzeko.

# Sutea sukaldean gertatzen denean

Sukaldeko suteak auniztan zartagitik edo frijigailutik hasten dira. Hau gertatzen bazaizu, gasa itxi eta ke-erauzgailua edo extraktorea gelditu. Zartagia baino zabalagoa den estalki bat hartu eta gainean paratu, osorik estali arte. Frijigailua badin bada, uretan bustitako zapi lodi bat edo toalla paratu, oso-osorik estaliz. Estintorea ere erabiltzen ahal da, baina urrun xamarretik, presioan datorren zorrotadak olioa edo sua mugi dezake eta. Sugarrak ateratzen badira, ez mugitu zartagia: erretzeko arriskuaz gain, sutea zabaltzen ahal duzulakoz. Olioa erretzen ari baldin bada ez urik erabili.

«Sugarrak ateratzen badira, ez mugitu zartagia: erretzeko arriskuaz gain, sutea zabaltzen ahal duzu».

Hasieran aipatu dugun bezala egiten baduzu, harritua geldituko zara zein abudo eta garbi itzaltzen den sutea. Halere, ez berehala kendu estalkia edo toalla. Olioa hoztеko astia utzi, bertzenaz bere gisara berriz ere piztuko da. Kontu eman ke-estraktorearen kanpaiko filtroan pilatzen den olioarekin, nahiko errex erretzen baitira. Astean behin garbitzea komeni da. Zartagiko sugarrek estraktorea ukitzen badute, bigarren sute bat gertatuko da, itzaltzeko zailagoa gainera. Plastiko edo aluminiozko tuboetan olioa pilatzen da eta horrek sua itzaltzea zailtzen du, urtu egiten baitira eta sukaldeko altzarien gibeletik plastikoa edota olioa erretzen delakoz. Kasu honetan bazaude azkar mugitu: Grifoa ireki eta baldea betetzen den bitartean argindarra moztu. Katilu edo ontzi batekin ura bota sugarrak ateratzen diren armarioetara. Ez beldurrik izan urarekin, bota aisa!

## LIBURUAK



*Metroko neska*

**Iván IGARTUA**

*Hiria 2001*

Gasteizen jaiotako idazle gazte honen liburuan ipuin laburrak edo mikro-ipuinak dira nagusi, kontakizun sinpleak eta bitxiak tartekatzen dituztenak. «Ana G.» edo «Maiatzeko euria» bezalako ipuin politak jasotzen ditu 150 orrialdeko bildumak. Bidebatez, omenaldi modura ere ulertzen ahal da bilduma hau. Autoreak ez ditu bere lehentasun literarioak ezkutatzen. Borges bera bihurtzen du protagonista ipuinetako batean; Julio Cortazar bertzean. Kafka ere hor dago, izatean eta hutsunean: «Bere giza itxura berreskuratu zuenean, Gregor Samsak labezomorroz beterik aurkitu zuen bere gela». Denboraz haratago dagoen bidai sorta batean barneratzeko parada ere ematen digute: Gasteiz, Japonia, Ekialde urruna... Aisa irakurtzen diren narrazioak dira denak, hizkuntza zuzen batean idatziak. Eleberri luzeak gustoko ez eta irakurraldi bakoitzean istorio bat akautu nahi dutenentzat gomendagarria.

## AGENDA egunez egun

### ZINE KLUBA

**BERA**

**Maiatzak 23. En tierra de nadie.** Jugoslavia.

### ERAKUSKETAK

**BERA**

**Maiatzaren 20tik ekainaren 1era** Corrado Masacciren txotxongilo artegintza erakusketa Kultur Etxean 18:00etatik 20:00etara Toki Ona Institutuak antolatua.

### ANTZERKIA

**BERA**

**Maiatzaren 24an** Doike antzerki taldearen «Inperfektoa izan nahi dut» antzezlana Kultur Etxean, 20:00etan. Mugaz Gain Haur eta Gazteen 8. Antzerki Jardunaldien barnean.

### KONTZERTUAK

**BEINTZA-LABAIEN**

**Ekainaren 2an** eguerdian Doneztebeko Musika Eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute Labaiengo elizan.

### KINTO AFARIAK

**BERA**

**Ekainaren 1ean** 1967ko kintoen afaria Zalainen. Izen ematea maiatzaren 30a baino lehen egin behar da.

### GUARDIAKO FARMAZIAK

**Maiatzaren 20tik 26ra**

Arantza, Narbarte, Elizondo (Garcia Mata), Irurita, Leitza (A. Gimeno) eta Goizueta.

**Maiatzaren 27tik ekainaren 1ra**

Bera (Mª Jose Sanz), Doneztebe (Miren Etxarte), Elizondo (Iturralde), Oronoz-Mugairi eta Goizueta.

**Ekainaren 3tik 9ra**

Igantzi, Ituren, Elizondo (Lezaun), Arizkun, Urdazubi, Leitza (O. Erbiti) eta Goizueta.

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 0,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa lekeetan ere agertuko da (hala izanez gero argazkiarekin) 0,30 € Rural Kutxako 3008 0080 51 0703204826 kontuan sartu eta ordainketa ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

**...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. Ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.


**ETXEBIZITZAK**
- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

**LANA**
- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

**MOTORRA**
- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

**DENETARIK**
- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
- 801. Agurrak




## ETXEBIZITZAK

### 101 Saldu

**DONEZTEBE.** 100m²ko pisua salgai. 2.solairua. ☎ 948 450 160 (komertzio ordutan).

**BULDAIN**
Leitzan, Amazabal kalean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, azaonarea eta trasteroa. 90.000 €.
✆ 649 479 915
✆ 948 510 334 [illegible]

**BERA. Duplex pisua salgai** Eztegara pasalekuan. 1.solairua 125m² 2.solairua 30m². Prezio negoziagarria. ☎ 948 630 251 - 679 526 401

**ELIZONDOtik hurbil etxe ttikia salgai.** Arras ongi apaindua, lorategiarekin, kalefakzioa eta musika-haria geletan. ☎ 636 249 480 (Luis).

**LEITZA. Pisua salgai** mobleztatua, komuna, gela, kalefakzioa (gasa) eta sukaldearekin. Argitasun handia ☎ 948 510 663

**BERA. Pisua salgai** garajearekin edo gabe. Legia, 21 4.B. ☎ 948 631 383

**LESAKA. Pisua salgai.** Bittiria, 38. ☎ 948 637 267.

**BERA. Pisua salgai** mobleztatua, garaje, kalefakzio, trastero eta lorategiarekin. ☎ 948 631074 (gauez).

## ETXEBIZITZAK

### 102 Erosi

**Baserria lur eremuarekin** erosiko nuke. ☎ 699 526 512

## ETXEBIZITZAK

### 103 Errentan eman

**SUNBILLA. Etxea errentan emateko.** Herritik 3km-ra. Urte osoan. ☎ 948 393 070

## ETXEBIZITZAK

### 104 Errentan hartu

**LESAKA.** Familia batek **pisu edo etxea behar du errentan hartu edo erosteko.** Premiazkoa. ☎ 609 477 277

**BERA.** 4-5 lagunek pisu mobleztatua errentan hartuko lukete. ☎ 696 973 398 (Lidia)

**BASERRI edo BORDA** bat lur eremu ttiki batekin, errentan hartuko nuke. Zaldi bat edukitzeko. ☎ 636 852 690 edo 661 859 494

**ADOS**
- Eskaera handia dagoenez, bordak, baserriak, lur-eremuak, bajerak etab. erosi nahi dira.
- Edozein herritan badago zerbait. Eskatu informazioa

**DONEZTEBE**
- Azken pisu berria salgai.
- Pisu duplexa salgai, garajearekin. Berri-berria
- Bigarren eskuko pisuak salgai.
- 5.500 m²ko terreno eraikigarria, 2 txalet egiteko aukera.

**BERA**
- Pisu batzuk salgai.
- Altzaten, lehen Txoko ostatua izan zena salgai, 175 m²ko bajera, 50 m²ko terrenoarekin.

**ELIZONDO**
- Pisu ekonomikoa salgai, zaharberritzeko dago.

✆ 948 451 841
607 978 656

## GARAJEAK/LOKALAK

### 108 Erosi

**BERA-LESAKA. Bajera erosiko nuke,** 50-75 m²koa bada hobe. ☎ 699 894 097

**ZUBIETAko UDALA**

**ZUBIETAKO ERROTARAKO ERAKUSLEA BEHAR DA**

**Beharrezkoa da**
- Eskola Graduatua.
- 18 urte baino gehiago izatea.
- INEMen izena ematea.
- Euskara menperatzea bai ahoz zein ulermenez. (EGA edo Hizkuntza Eskolako baliokidea ez dutenentzat azterketa bat eginen da)

**Baloratuko da**
- Enpresa eta turismo jardueretan Teknikaria.
- Jendearekiko harrerarekin erlazionaturiko formakuntza.
- Lan esperientzia.

Interesaturik dauden pertsonek bere kurrikuluma (DOKUMENTATUA) Zubietako Udaletxera eraman behar dute maiatzaren 28ko 11:00ak baino lehen.

Informazio gehiago behar baduzu deitu CEDERNA-GARALUR eko Lanbide Orientazio Zerbitzura. 619 829 289 telefonora (Oskia)

## GARAJEAK/LOKALAK

### 111 Traspasoak

**ELIZONDO. Ostatua eskuz aldatuko genuke.** Errenta baxua. ☎ 948 585 016

**ELIZONDO. La Asturiana ostatu-jatetxea** eskuz aldatuko genuke. ☎ 646 485 813

## LANA

### 301 Eskariak

26 urteko neska euskaldunak **goizetan lan** eginen luke. ☎ 649 729 665.

19 urteko neskak, astebururtan lan eginen luke. **Dendetan edo Ostatuetan,** baita **herriko bestetan** ere. ☎ 661 265 060

**Udan goizetan** haurrak zaindu edo etxea garbituko nuke. ☎ 948 585 119

**Esperientzia** duen neska euskaldun batek lan egin nahi du udan, **Lesakan edo Beran,** haurrak zaintzen. ☎ 948 637 911 Edurne.

**Udan** lan egin nahiko nuke. ☎ 616 357 164

**Arratsetan edo asteburuetan** lan eginen nuke. Xaharrak zaintzen esperientzia dut. ☎ 948 625 147 (arratseko 8etatik 10 etara).

## LANA

### 302 Eskaintzak

**IBARDIN. Almazenean lan egiteko mutila** behar da urte osorako, eta frantsesa dakien **neska dendarako.** ☎ 948 630 734

## MOTORRA

### 501 Salerosketak

**Peugeot 106 Long Beach kotxea salgai.** 44.000 km. Itxiera zentralizatua, CDarekin, kristal igogailu elektrikoa. ☎ 696 075 518

**Peugeot 205 D, 1.8** salgai. NA-AS, haize egokituarekin. Egoera onean. ☎ 637 833 881 edo 948 635 097 (gauez).

**Peugeot 309 salgai.** Egoera onean. Aukera bikaina. ☎ 948 631 037

**C15 diesela salgai.** Egoera onean. ☎ 948 638 144

**Mitsubishi Pick-Up salgai.** 37.000 km eta urte erdiko garantiarekin. ☎ 948 610 771

## urtebetetzeak



[illegible] Zubieta Telletxea [illegible]



**Ainhoa Arburua Sagastibeltzak** maiatzaren 18an urtea beteko du. Aunitz urtez zorion, etxeko guzien partetik.



**Mikel Arregik** maiatzaren 26an 7 urte beteko ditu. Zorionak potxolo! Zure bihotzeko azukre koxkorra. Muak!



**Olatz Mitxelena Sagastibeltzak** ekainaren 4an 3 urte beteko ditu. Zorionak atta, ama eta Beñaten partetik.



**Andoni** doneztebarrak 9 urte beteko ditu maiatzaren 26an. Aunitz urtez gurasoen eta lehengusuen partetik. Aupa pilotari!!



**Martin Etxegarai Lopez** lesakarrak 4 urte beteko ditu maiatzaren 24an. Zorionak eta 4 musu: Fernando, Goretti eta gurasoak.



Maiatzaren 5ean gure **Jabiertxok** 28 urte bete zituen. Zorionak kuadrilaren partetik.



**Andrea Etxeberria Elizalde** Igantziarrak 2 urte beteko ditu ekainaren 14an. Zorionak eta musu handi bat familia guziaren partetik.


KULTURKARI
publizitatea zerbitzuak
948 631188
kulturkari@euskalnet.net



[illegible] MOTOR
SUNBILLA
Isuzu TDI, Renault Kangoo, Land Rover Defender, Nissan Pick Up



[illegible]DAUR MOTOR
DONEZTEBE
Egoera onean dauden kotxeak:



BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

Sukaldean erabilitako olioen bilketa egunak

2002ko ekainaren 6an

Bera ................. 9etatik 12etara
Etxalar ................. 13etatik 14etara

☎ 948 635 254 - Etxalar


[illegible]maha XT 600 Trail motoa salgai. ☎ 948 527 587 (gauez).

[illegible]maha XJ 600-s diversión salgai. 2.525 €. ☎ 948 637 [illegible] edo 658 743 363

[illegible]rasadora **TORGAR** marka salgai. ☎ 948 510 517

**[illegible]MALIAK**

### [illegible] Saldu/Erosi

[illegible] ehiziko zakur emea salgai. 5 urtekoa da. ☎ 670 [illegible]

[illegible] salgai, **antxumearekin edo antxume gabe**. ☎ 948 510 517

[illegible] arrazako zakur emea, [illegible] salgai. Ehizan ha[illegible] ☎ 948 630 406 (Ilunabarrean deitu).

[illegible] arrazako 2 zakurku[illegible] salgai, bat arra eta bertzea emea. ☎ 948 634 074

**Behi suizoa bere ume urruxareki salgai.** Umea 2 hilabetekoa. ☎ 948 635 188 (eguerdi edo arratsetan)

**Hasky Siberiar** arrazako zakur emea salgai. 2 urtekoa. (Areson) ☎ 948 510 449

**DENETARIK**

### 701 Galdu/Aurkituak

**Lepoko baten urrezko plaka** aurkitu da, Berako Polikiroldegi ondoan. ☎ 948 631 188

**BERA. Zalain-zoko** bidean **giltzak** aurkitu ditugu, gurutze haundi batekin. 3 giltza eta beste bat ttikia. Maiatzaren 7an. Agerrako elkartean daude. ☎ 948 630 576 (Xeberi)

**LESAKA, BERA edo DONEZTEBE. Identitate plaka** "B A" jartzen duena. Lauburu bat, eta elefante ttiki bat duen katea galdu da. ☎ 948 630 117


manelsa S.L.L.

elektrizitate industriala

**Instalazio eta muntaia elektrikoak**
**Mantenimendua**
**Automatismoak**
**Iluminazioa**

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
**31700 ELIZONDO**

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
**31195 BERRIOZAR (Nafarroa)**


## ZUBIETAko UDALA

### OBRA KONTRATATZEA ZUBIETAKO KANPO-SANTUA KONPONDU ETA HANDITZEA

- **Xedea:** Goiburuan aipatutako obrak.
- **Esleipen prozedura:** prozedura negoziatua, prentsako publizitatearekin.
- **Kontrataren aurrekontua, BEZa barne:** 30.597,76 €
- **Proposamenak aurkezteko epea:** 2002ko maiatzaren 30eko goizeko 11k arte, Zubietako Udaletxeko Idazkaritzan.
- **Aurkeztu beharreko agiriak:** klausula administratiboen pleguan ageri direnak.
- **Proposamenak irekitzea:** jendaurrean irekiko dira, 2002ko maiatzaren 31ean, goizeko 10etan.

Proiektu teknikoak eta klausula administratiboen plegua interesatuen eskura daude PAPELERIA COLOR en, Antso Azkarra, 14 Iruñea.

Zubieta, bi mila eta biko maiatzaren hamaika.

Alkatea, Venancio Baleztena Santesteban

**DENETARIK**

### 702 Salerosketak

**Karreterako bizikleta** salgai, gutti ibilia eta egoera onean dagoena. ☎ 948 450 598

**Pigini akordeoia** salgai. Tekladuna eta reduzitua. Prezio onean. ☎ 620 145 500 (Aitziber).



www k c n

ZE MIK
ET INUEN
E KUSKET IK
IKUSG IEN
EUSK L HE IK EZI IK H E EN K

alkain
z ramikak a ba nuak



MUEBLES AMETS

**Sarrera BERAtik da**
*Sastrin karrika, 3.2 - 3.4 Alkaiaga*
**31789 LESAKA**
*Tfnoa. 948 630 537 Fax. 948 631 443*








larunbat arratsaldetan irekia

Sukaldeak Egongelak
Logelak Bainugelak

n r l
uk r

# BORDATXO

M tz k
L run t
25

J EST S N TU

d ulen (b rdatx ) - d naz (en p wer)

Ek n k
L run t
1

ISK T KA

STI3ALA

PEPSI Z ZKET ET I K

SLI EE



MILESKER, GUREKIN IZATEAGATIK